ARGIA

Kurdistan berriz ere kolpatua

ROJAVATIK KRONIKA
KARLOS ZURUTUZAREN ESKUTIK

22-27.orriak

#2.679 | 2020/03/01 | 3,90 €

Kapitalismo koloniala mundu osoarentzako
10 I NET HURBIL

"Ez gara arrazismoaz hitz egiten ari"
12 I AINHOA NADIA DOUHAIBI

Badator Martxoaren 8a
37 I FEMINISMOA

Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

ARGIA

ARGIA

2.679 zenbakia I Martxoak 1, 2020

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
ANDONI LUBAKI

Iritziak

17 I ESTITXU GARAI ARTETXE
18 I ANE ABLANEDO LARRION
19 I ENEKO OLASAGASTI
19 I ITZIAR BARDAJI
20 I JON ALONSO

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

40 I BIZI BARATZEA
42 I ARGIA KOMUNITATEA
43 I DENBORAREN MAKINA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: SAIOA BALEZTENA
54 I BERANDUEGI

DANI BLANCO

32 I **ZALDIBARKO ZABORTEGIA**
ARGIAren eskuetara bi dokumentu iritsi dira: 2013an Ingurumen Sailak Verter Recycling-en zabortegiari berrituta emandako Ingurumen Baimen Bateratua, eta 2018an zabortegi horretan isuri ziren hondakinen Jaurlaritzako datuak. Biak alderatuta gauza harrigarriak azaldu ditu Estitxu Eizagirre kazetariak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Kapitalismo tropikalean herrialde aberatsetako jendeak gara kolonizatu berriak
Pello Zubiria Kamino

12 I AINHOA NADIA DOUHAIBI
"Ez gara arrazismoari buruz hitz egiten ari"
Miren Artetxe Sarasola

22 I NAZIOARTEA
Kurdistango Rojavan, amesgaiztotik ezin esnatu
Karlos Zurutuza

28 I EUSKARA
Itzultzaile neuronala euskaraz gehiago sortzeko baliatuko al dugu?
Onintza Irureta Azkune

37 I FEMINISMOA
M8 greba deitu zein ez, borroka eguna
Amaia Lekunberri Ansola

37 I KULTURA
EITB Kultura: zorioneko salbuespena ETBn
Lander Arretxea Bereziartua

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

IZENA DUENAK IZANA DU

Mozorro, moxorroko, zomorro, momotxorro, momoxarro, mamuxarro, momoxuerre, txatamorro, ñañarro, mumuzarko, muzizarko, kamarro, kakarro, anarru, mamarro, marmo, marro, marrau, kokomorro, kokox, kokomoko, kokomarru, kukumarro, katximorro, katxi, katxirulo, kaskabobo, kaxkarot...

EKAITZ ZILARMENDI
DANTZAN.EUS
"EUSKARAREN INAUTERIAK" ARTIKULUTIK

AURREZ AURRE DUGU SOZIALISTA, KOMUNISTA, SEZESIONISTA ETA BATASUNO-EN FRONTE POPULARRA

Carlos Iturgaiz
RADIO EUSKADI

ITUGAIZ, ALFONSO ALONSOREN ORDEZ EUSKADIKO PP-N. ESKUIN MUTUR GEHIAGO EUSKALDUNENTZAT, BOTO GUTXIAGO PP-RENTZAT

@lozomarti

ITURGAIZ IZANGO DA PPKO LEHENDAKARIGAIA. ASPERTU, EZ GARA ASPERTUKO

@GARA_ikerbizkar

10 URTETAKO IBILIBIDEAREN ONDOREN MARTXOAREN 1EAN AGUR ESANGO DUGU. ABIAPUNTURA ITZULI ETA BERRIZ LEHERTZEKO INDAR GUZTIAK JARRIKO DITUGU HURRENGO PAUSOETAN

TOPATU.EUS

BADUGU INAUTERIETAKO MOZORRO ONENAREN GARAILEA

@Excelvillous

SEA WATCH

Carola Racketeri arrazoia eman dio Justiziak

MARIA ORTEGA ZUBIATE

Sorospen betebeharra” bete zuela ondorioztatu du Italiako Justiziak, eta Carola Rackete kapitainaren aurkako karguak bertan behera utzi ditu. 2019ko ekainaren amaieran, Lampedusan (Sizilia, Italia) porturatu zuen Sea Watch 3 ontzia 40 migratzailerekin, Italiako poliziaren ezezkoari muzin eginda. Handik gutxira atxilotu egin zuten.

48 orduz egon zen Sea Watch 3 itsasontzia porturatzeko zain. Italiako uretan, baina porturatzeko baimenik gabe, itsasontziko egoera okertzen zihoan. Bi migratzaile ebakuatu egin behar izan zituzten gaixorik zeudelako, eta gainontzekoek uretara salto egingo zutela zioten, laguntzarik heldu ezean. “Carolak ez zuen beste aukerarik”, zioen Giorgia Linardi Sea Watch Italia Gobernuz Kanpoko Erakundeko bozeramaileak.

Kapitainari “legez kanpoko immigrazioa sustatzea” leporatu zioten. Legez kanpoko porturatzearen ondorioz “gerrako ontzien aurkako erresistentzia eta poliziaren lantxen aurkako abordatze-saiakera” ere leporatu zizkioten, porturatzean talka egin baitzuen horietako batekin. Hau da, 5 eta 12 urte bitarteko kartzela-zigorra izan zitekeena.

Handik hiru egunera, ordea, aske utzi zuten. Matteo Salvini Italiako Barne ministro ohiak haserre erantzun zuen, eta kapitaina bere jaioterrira, Alemaniara itzultzeko egin beharreko guztiak egingo zituela adierazi zuen. Carola Rackete “segurtasun nazionalerako arrisku” gisa definitu zuen.

ZAZPI HILABETEREN OSTEAN, ASKE

Otsailean izan du epaiketa kapitainak, eta epaileak delitu guztiak ezetsi ditu, itsasoko “sorospen betebeharra” nagusitzen dela argudiatuz. Kapitainaren jokaera justifikatu du epaileak, itsasoko bigilantzia lanetan dabiltzan horiek ere “sorospen betebeharra” lehenetsi behar dela badakitela argudiatuz.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Hura baitzen

ARITZ GALARRAGA

Begietara ez begiratzeagatik, agian galtzen ari gara lotsatien arteko harreman ezin ederrago bat. Edo agian galtzen ari gara Etienne de La Boetie bezalako lagun bat ezagutzea. Esan diezaiotela Montaigneri. La Boetie –Marina Garcesek eman zidan haren berri–, XVI. mende erdialdera eta hamasei urte ingururekin testu ezin garaikideago eta ezin helduago bat idatzi zuena, *Borondatezko morrontza*, zeinean zapalketa politikoaren azken kausa biktima direnen borondatea dela esaten zaigun, eta zeina irakurria izan den alegatu anarkista baten, demokrazia zuzenaren eta estaturik gabeko gizartearen apologia baten gisara.

Esan diezaiotela Montaigneri, testu hori irakurri eta berehala ezagutu nahi izan baitzuen La Boetie. Handik aurrerakoa adiskidetasun istorio ederrenetariko bat dugu: "Lagun gozo, maite, intimoena", "antzekorik sekula gehiago ez dut aurkituko". Hil zenean, gazte, hogeita hamahiru urteak bete gabe, hauxe idatzi zuen: "Galdu nuen egunetik ez dut besterik egin, atsekabean arrastaka ibili baino". Eta bere entseiu ezagunetan betikotu zuen adiskidetasunaren laudorio eta definizio gogoangarri hau: "Behartzen banaute esatera zergatik maite nuen, sentitzen dut hori ezin esana dela baizik eta hau erantzuten: 'Hura baitzen; ni bainintzen'".

Ez dakit, agian gehiegitxo izango da halako adiskidetasun bat gaur egun, agian konformatu beharko ginateke Tarantinoren azken filmean Leonardo di Capriok eta Brad Pittek daukatenaren antzeko zerbaitekin –"laguna, anaia bat baino gehiago, emazte bat baino gutxiago"–. Gauza da ez nuela uste, nik, garai batean txiste geopolitiko hura –lagunik ez, aliatuak bakarrik– erabiltzen zuenak, hezur-mamizko laguntasunik eduki nezakeenik. Deskubrimendu handia izan da adin batetik aurrera lagun onak egin daitezkeena. Nork esango zidan, denborarekin, nire La Boetie –edo nire Brad Pitt, nahi duzuen bezala– aurkituko nuenik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"EUSKARAK EZ DU LANPOSTU PUBLIKO BATERAKO DERRIGORRA IZAN BEHAR"

CAROLINA DARIAS, ESPAINIAKO LURRALDE POLITIKAKO MINISTROA

Dariasen hitzetan, lanpostu publiko bat lortzeko euskara derrigorra ez, baina "meritu gisa" baloratu behar da. EAJko Josune Gorospe diputatuari erantzutean egin ditu adierazpenok, Gorospek galdetu dionean ea Espainiako Gobernuak ezarri duen euskalduntze planik EAEn lanean dabiltzan Estatuko Administrazioko funtzionarioentzat. Hitz hauengatik kritika ugari jaso ditu ministroak, Euskal Herriko hainbat sektoretatik. **2020/02/19**

EKONOMIAREN TALAIAN

Tobin eta Google tasak ez daitezela izan propaganda huts

JUAN MARI ARREGI

Espainiako Gobernuak onartu du Tobin eta Google finantza-tasak sistema fiskal moderno baten barruan ezartzea, eta sistema hori Espainiako Estatuan ez ezik, Europa osoan garatu nahi da. Munduko kapitalismoaren funtsezko kudeatzaile den AEBetako presidente Trumpen mehatxuek, ordea, paper bustian edo zerga hutsalean utz lezakete.

Google tasa erraldoi digitalei ezarriko litzaiekeen %3ko zerga da, munduan 700 milioi euro baino gehiago fakturatzen duten eta Espainiako Estatuan 3 milioitik gorako diru-sarrera duten enpresa digitalak zergapetuko lituzke. Tobin tasak, berriz, 1.000 milioitik gorako burtsa balioa duten Espainiako konpainien akzioen salerosketa zergapetuko luke %0,2rekin. Erosketa-agindua betearazten duten finantza -bitartekariek ordainduko diote fiskoari. Bi zergekin 2.000 milioi euro bildu nahi zituzten 2019an, baina dagoeneko 1.200 milioi ingurura murriztu dute kopurua.

Trumpek esan du bere enpresa teknologikoei zergak ezartzen dizkieten herrialde horietako produktuei muga-sariak ezarriko dizkiela. Eta badira herrialde batzuk, Frantzia kasu, horren aurrean kikildu eta zerga hori atzeratu dutenak urte amaierara. Hilabete asko geratzen dira tasa horiek ezartzeko, baina Trumpek denbora bera dauka bere armada teknologiko kapitalista osoarekin xantaia egiten segitzeko eta bere irizpidea inposatzeko. Hau da, tasa horiek ezabatu edo, gutxienez, ahalik eta gehien murriztea.

Herritarrek, alderdi politiko, sindikatu eta mugimendu sozialekin batera, fronte solidario eta antikapitalista planifikatu beharko lukete, tasa horiek ez daitezen bihurtu gobernuaren propaganda huts. Soilik horrela lortuko dute pentsioak, mendekotasuna, berdintasuna eta gizarte-ongizatea hobetzeko eraginkorrak izatea. ●

ANALISIA



Ikuspegi faltagatik, berandu iritsi da Filmin Euskaraz

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Zinezale euskaldun asko poztuko zen irakurri zuenean Filmin plataformak euskarazko kanala martxan jarri duela. Pelikulak euskaraz ikusteko lehenbiziko *streaming* plataforma 2020an iritsi da, ikus-entzunezkoen kontsumoa mota horretako atarietan guztiz normalduta dagoenean, eta albistea ona den arren, bati baino gehiagori geratuko zaion sentsazioa da euskaldunok, berriz ere, berandu iritsi garela paradigma aldaketara.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik gabe ireki du kanala Filminek. Hala azaldu du Jaume Ripoll plataformaren arduradunak *Berria*n. Aldiz, bertsio katalanak hiru urteko ibilbidea dauka dagoeneko eta Generalitateak 150.000 euroko laguntza batekin eman zion bultzada hasieran. Ez dirudi gobernu autonomiko batentzat kopuru astronomikoa denik, bueltan hizkuntza gutxitu batean egiten den zinemari ematen dion ikusgarritasuna kontuan izanda.

Filmin Euskaraz sor zitekeen ia katalanezko bertsioarekin batera 2017an, baina Jaurlaritzak ez zion babesik eman nahi izan, Ripollek iazko urrian Bilbon egindako jardunaldi batean esplikatu zuenez. EH Bilduko Rebeka Uberak Bingen Zupiria Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari horri buruz galdetu zionean, Zupiriak erantzun zuen EAEko Gobernuak bi atariren bidez –eLiburutegia eta Liburubila– eskaintzen dituela *streaming* bidez euskarazko pelikulak eta horiek kudeatzeko lotutako akordioengatik baztertu zutela Filminen aukera.

Hasteko, plataforma horietan "euskal zinema" gisa berdin-berdin agertzen dira euskaraz edo gaztelaniaz egindako pelikulak –marka da Filminek sentsibilitate handiagoa izatea euskararekin Jaurlaritzak baino–. Jarraitzeko, publiko orokorrak ez du eLiburutegiaren film katalogoa ezagutzen, hura iragartzeko lan handirik ez da egin eta webgune zaharkitu baten bidez alokatzen dira pelikulak, ez dago aplikazio triste bat ere. Eta amaitzeko: eLiburutegitik ikus daitezkeen pelikulen kopuru handi bat Filminetik hartzen da, zerbitzua noizbait erabili duenak badakien moduan. Jaurlaritza Filmini pagatzen ari da, Filmin baino zerbitzu kaxkarragoa eskaintzeko.

Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eredua aldatzen ari den garaian, baliabideak eduki arren, euskarazko ekoizpenek muga absurduak aurkitzen dituzte publikoarengana iristeko. Eta horren errua kudeatzaile txarrena da. ●

NAVARRAINFORMACION

PREZIO DUINEN ALDEKO PROTESTA

IRUÑEA. Produktuen salmentan jasotzen dituzten prezio baxuen aurka Iruñea hartu dute nekazariek, UAGN eta UCAN sindikatuek deituta. Traktore eta guzti agertu dira nekazari asko, lanbidean errentagarritasuna lortzeko aldarriarekin. Hamalau urtean, erdira jaitsi da nekazari eta abeltzainen kopurua Nafarroan, neurri handi batean prezio baxuek eraginda.

ESKUIN MUTURRA

11 hildako eta 5 zauritu eragin ditu ultraeskuindar baten eraso xenofoboak Alemanian. 8 pertsona hil zituen bi *shisha tabernatan* (batez ere komunitate kurdua bildu ohi da bietan); ondoren, ama hil eta bere buruaz beste egin zuen.

3 dira aurten Alemanian hildakoak utzi dituen eskuin muturraren ekintza terroristak. Ultraeskuinaren terrorismoa mehatxu dela ohartarazi du Gobernuak.



Preso ohiei egindako ongi-etorriengatik deklaratzera

ARGIA

Hamabi lagun deklaratzera deitu ditu Espainiako Audientzia Nazionalak, 2016 eta 2019 artean preso ohiei egindako ongi-etorriengatik. Tartean dira joan den urtarrilean atxilotu eta ordu batzuetara libre utzitako kideak.

HAMABI GUZTIRA

Urtarrilaren 22an Guardia Zibilak atxilo hartu eta ordu batzuetara libre utzitako ezker abertzaleko kideak deklaratzera deitu ditu, eta horiekin batera zitazio bera jaso dute Juan Mari Olano eta Julen Larrinagak ere. Bigarren txanda batean deklaratzera deituta leudeke beste sei lagun: Alberto Matxain, Garazi Autor, Ikerne Indakoetxea, Jorge Olaiz, Irati Tobar eta Miren Zabaleta.

ONGI-ETORRIEN AUZIA

95 harrera ekitaldi antolatzea eta koordinatzea leporatzen diete. 2016 eta 2019 artean preso ohiei egindako ongi-etorriekin auzia osatzen ari da Madrilgo entzutegia eta horren ondorio dira zitazio hauek. Presoei egindako harreretan biktimak "umiliatzea" eta "ETA goraipatzea" egozten die Guardia Zibilak eta hori ikerketzeko abiatu du instrukzio epaileak auzia.

IRUÑA-VELEIA. Otsailaren 19an, bi aldeek behin betiko ondorioak aurkeztu dituzte eta epaiaren zain geratu da auzia. Eliseo Gilentzat bost urte eta erdiko kartzela zigorrari eusten dio Fiskaltzak. Epaiketak "sufrimendu ikaragarria" eragin diola salatu eta bere errugabetasuna defendatu du Gilek.

DAVID PLA. Preso politikoa aske utzi du epaileak, deklaratu ostean. Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile María Tardónek hartu du erabakia. Espainiako Estatutik irteteko debekua ezarri dio, eta hortaz ezin izango du Hendaiara bueltatu. Bertan bizi da Pla, familiarekin.

KORONABIRUSA. Aldizkari hau ixteko unean (otsailak 24) 215 kutsatu baino gehiago eta bost hildako daude Italia iparraldean. Besteak beste, Veneziako inauteriak bertan behera geratu dira, hamar bat herri bakartuak izan dituzte eta hainbat hiritan eskolak, museoak eta tabernak itxi dituzte.

KAPITALISMO TROPIKALEAN
HERRIALDE ABERATSETAKO JENDEAK GARA KOLONIZATU BERRIAK

Mendebaldeko kapitalismoa egin da mundu osoaren jabe, arerio guztiak erori ostean. Planeta mugatua baldin bada, bere amaierara iritsi ote da kapitalismoa? Ez, dio Xavier Ricard Lanata antropologoak, badauka oraindik konkistatzeko eremu bat: metropoliko lurrak, jendeak eta ondasunak kolonizatzea, hau da, Mendebalde aberatseko jendeok erabiltzea orain arte tropiko urrunetako kolonizatuak bezala. Horra kapitalismo koloniala mundu osoarentzako.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

XXI. mendeko hirugarren hamarkadan sartzean mundua gatazka sozialetan erre-egosten ari da mutur batetik bestera, izan Txilen, Hong Kongen, Teheranen edo Frantziako biribilguneetan. Ezinegon orokortua esplikatu nahian argitaratu diren liburuen artean dago Xavier Ricard Lanata Frantziako Estatuko goi-funtzionario eta antropologoaren *La tropicalisation du monde* (*Munduaren tropikalizazioa*). Lanatak berak azaldu berri du liburuaren mamia ezkerreko zenbait hedabideetan plazaratutako artikulu eta elkarrizketetan. Agian irakurle euskaldunak estimatuko du laburbiltzea.

Munduaren tropikalizazioa kapitalismo globalizatuaren orain arteko azken fasea da. Korporazio handiak beti metropolietako gizarte eta estatuen babesean indartu izan dira, hauek bermatzen zietelako mundu mailan arrakasta. Metropoli aberatsetan bizi garenokiko bazituzten bete beharreko arau batzuk, baina gaur horiei paso egin diezaiekete, betidanik urruneko lurraldeetan egin dutena egiteko: aro berri honetan metropoliak berak tratatzen dituzte orain artean koloniak tratatu dituzten gisa berean.

Gehienbat tropiko beroetan kokatuta dauden Hegoko herrialdeetan bezala, Iparrean ere gaur estatuak gero eta paper txikiagoa dauka jokoan, botere ekonomikoei aurre egiteko indarrak kendu dizkiotelako. Gorputz kolektiboa desagertzen ari da eta horrekin batera ekintza politikorik egin ahal izatea, Estatua mugatuz masaren kontrolatzeko tresnara. Gero eta gehiago, Mendebaldeko agintari politikoek jokatzen dute gizarte neokolonialetakoek egin duten gisa berean: epe laburrari begira, berdintasun ezari ez ikusia eginez, mugarik ezagutzen ez duen kapital globalizatua produkzio kostu apalekin erakartzeko edonor eta edozer sakrifikatuz... Lanatak dinamika horretan dakusa Frantzian ongizate estatua eraisteko agintariek daramaten bidea eta horren kontrako jendearen erreakzioak (Jaka Horiak bidenabar); baina eskema berean sartzen ditu metropoli guztiak, –euskaldunok barne, gehituko genuke guk–.

II. Mundu Gerra ostean hiru hamarkadaz eraikitako ongizate gizartea eraisten hasi direnerako, korporazioek aurretik herrialde kolonizatuetan luze eta zabal testatuak zituzten eta baldintza basatiok orain metropolietan berrezarri nahi dituzte. Mendebaldean "aurrerapena" deitu zaio produktibitatearen hobetzeari, langileen lan orduari produkzio handiagoa ateratzeari. Baina horretarako, aurrerapen teknologikoez gain, beharrezkoa zen energia eta lehengai merke gehiago eskuratzea. Horregatik egon da Iparrekoon aurrerapena loturik Hegokoei ezarritako bortizkeriari: planeta osoa arpilatu behar izan da, tropikalak deitu herrialdeetako baliabide guztiak erabiltzeko –gizakiak bezala natura eta baliabideak–.

Azken hamarkadetan kapitalak etekin iturri berri bat aurkitu du *bere etxean bertan,* orain arte gutxi jorratutako zerbitzu eta ondasun publikoetan, horiek merkatura atera eta pribatizatzeko aukeran. Kapitalen jabeek metropoliaren desjabetzan ikusi dute hazkundearentzako pizgarri berria, horra nola zerbitzu publikoak pribatizatu eta eraitsiz ase nahi dituzten inbertsiogile handien beharrak. Ipar aberatsa, Mendebalde industriala edo postindustriala ere deitzen duguna, bera bihurtu da orain arpilatzeko ehizaki (geure etxeko lan-baldintzak, natura, zerbitzu eta diru publikoak). Slavoj Zizek filosofoak bataiatu zuena metropoli kolonialen *auto-kolonizazioa*.

PLANETA OSOAN, KAPITALISMO KOLONIALA

Ataka berri honetara ez gara kasualitatez iritsi. 1970eko hamarkada bukaeratik lan orduen produktibitatea jaistearekin batera merkatuak ere asetzen hasi ziren; eta globalizazioa deitu zen uholde handiarekin, kapitalak batetik, produkzio kosteak merketu nahi izan zituen –fabrikak herrialde atzeratuagoetara eramanez– eta, bestetik, salmenten bolumenak handitu, horretarako jende pobreagoak ere kontsumora erakarriz, kreditu eta produktu berri merkez.

Alabaina, funtsean ekonomiaren goranzko martxa erregaien prezio merkean oinarritu da, hori izan da hamarkada gutxitan xahutu dugun antzinako aurrezki preziatua. Orain, petrolio eskura erraza urritzen hasi denean, erregai konplexuago eta ustiatzen garestiagoen bila ari da aztarrika kapitala, munduko zoko guztietan, azken tanta preziatue-

SIVENSEKO URTEGIA
FRANTZIAKO GATAZKA HAU IZAN ZITEKEEN HONDURASEN. "2014KO URRIAREN 26RA ARTE ZUHAITZAK ERAITSI ZITUZTEN. URRIAREN 26AN REMY ERAITSI ZUTEN 21 URTEREKIN" DIO PANKARTAK, POLIZIAK HILDAKO PROTESTARIA GOGOAN.

nak nondik eskuratuko. Erregai fosilen aroa gainditu behar omen duen *ekonomia berdea* ez da izango gai korapilo hori askatzeko, aro industrialaren logika estraktibistan jarraitzen duelako.

Horregatik dio Ricard Lanatak, Ipar aberatseko jendeok hasi gara geure larruan ezagutzen nola bizi izan diren luzaz Hego txiroko jendeak. Agur korporazio handiek metropolietako herritarrekin zeukaten nola-halako kontratuari: orain diruak eskatzen du Iparreko estatu eta administrazioek uko egitea kapitalen, ondasunen eta zerbitzuen zirkulazioen edozein kontrolei. Korporazioei zergak arindu edo kendu, lan-baldintzen arauak lausotu edo desegin, ingurumena babesteko legeak deuseztu... lanpostu eta aberastasun promesa hutsalen truke.

Lanatak entzun balu Iñigo Urkullu lehendakaria Zaldibarko zabortegiaren hondamendiaren harira behin eta berriz aldarrikatzen ingurumen gairik larrienean ere administrazioari soilik paper subsidiarioa dagokiola, eta Josu Jon Imazek –Repsolen buru izan aurretik EAEko lehendakariorde zenean– 2000. urtean lege bihurtu zuela enpresen inpunitatea... menturaz bere liburuan *Euskadi tropikalizatua* aipatuko zukeen, neoliberalen laborategien artean.

Izaera tropikal eta auto-kolonial honek jadanik aldatu ditu gure eliteen psikologia eta politika egiteko moduak ere. Aldaketa arriskutsua disidenteentzat, zeren eta administrazio publikoaren helburua kapitalaren interesak defenditzea dagoela onartu duten unetik, bestela pentsatzen duten guztiak susmagarri eta bazter-nahastaile bihurtzen baitituzte. Horregatik, Iparrean bezala Hegoan, agintariak gero eta gor-itsuago daude protesta sozialen aurrean. Aspaldi da sistema liberalak ez dietela jaramonik egiten herritar eta taldeen interes ezberdinak eta ezinegonak artikulatzeko sortutako tresna eta mekanismoei.

"Gure demokrazietako langile txiroak –dio Lanatak– zorpetuta daude kolonietako soroetan jornaleroak zeuden gisa beretsuan. Menpekotasunaren teoria, *periferia*-koentzako pentsatua, baliagarria zaigu gaur *zentro*-kooi. Beraz, Iparra tropikalizatzen ari baldin bada, *destropikalizatu* egin behar dugu Hegoa. Ez dago benetazko hesirik haien eta gure artean, ez historikorik, ez eta intelektualik. Arkaikotzat geneuzkan gizarteek balio diezagukete gure etorkizuna aurreikusteko. Hegokoen esperientzia eta teoria kontra-hegemonikoak harribitxiak zaizkigu, erresistitzeko bide posibleak erakusten dizkiguten heinean". ●

Ainhoa Nadia Douhaibi

IDEIAK ZORROTZ ETA HITZAK SAMUR (OÑATIKO ZENTZUAN)

“EZ GARA ARRAZISMOARI BURUZ HITZ EGITEN ARI”

Liburu aurkezpenaren aitzakian, gustura jardun dugu hizketan Gasteizko alde zaharreko freskuran. Bera behar adina esan ez izanaren sentsazioarekin geratu omen da. Gu esandako guztitik zer liseritu ote dezakegun zalantzan gaude oraindik.

MIREN ARTETXE SARASOLA DANI BLANCO

Hamahiru urte dira Bartzelonara joan zinela bizitzera. Zenbat aldiz aditu duzu noiz itzuli behar ote duzun?

Hori Oñatin bakarrik galdetzen didate. Han, Bartzelonan, inork ez du galdetzen noiz itzuli behar duzun. Inork ez daki nongoa zaren ere. Baina, orain, hemen ere gero eta gutxiago galdetzen didate.

Atzerriko hizkuntzako irakasle zinen Oñatin, eta master bat egitera joan zinen hara.

Interesa neukan migrazio kontuetan eta entzuna nuen Katalunia nahiko aitzindaria zela gaiotan. Egia esan, ez neukan halako espektatibarik ere. Ez nekien zer egitera nindoan zehatz-mehatz, baina, irteteko gogoa neukan eta halaxe joan nintzen.

Eta hortik gazte migratzaileekin lan egitera igaro zinen. “Harrera zentro” deiturikoetan ematen die babes –obligazioz– Espainiako Estatuak adin txikiko migranteei, enpresa pribatuek kudeatutako aterpetxeetan. Eta han sartu zinen zu.

Ez zen aurreikusitako zerbait izan. Hasieran euskal tabernatan egin nuen lan, lana topatzeko aukerarik samurrena zelako. Baina, masterra bukatzen nenbilela gogoa nuen aldaketarako. Ostalaritzan urte pila bat neramatzan, eta iragarki bat ikusi nuen zentro batean lan egiteko. Ez nekien zer zen ere, egia aitortuta. Iragarki horretan jartzen zuen gazte etorkinekin gauez aterpetxe batean lana egiteko aukera zegoela eta deitu egin nuen. Eta zuzenean esan zidaten biharamunean elkarrizketa batera azaltzeko. Dena oso agudo. Elkarrizketara joan nintzen nora nindoan jakin gabe eta galdetu zidaten ea gazteekin-eta ondo moldatzen nintzen, eta nik baietz, eta esan zidaten “baina marokoarrak dira”, eta nik, berriz, “ni erdi marokoarra naiz “, eta handik egun gutxira lanean nintzen.

Eta zerekin egin zenuen topo han?

Nahiko ondo akordatzen naiz lehen egun hartaz. Ramadaneko lehen eguna zen eta ni nahiko urduri nengoen. Zentro hau Bartzelonako periferian zegoen, eta egituraz oihal fabrika zahar bat zen. Sarrera zen horrelako kartzela-ate baten modukoa, eta sartu nintzen eta hasieran ez zegoen inor. Baina, gero mutikoak ailegatzen hasi ziren. Eta han nengoen ni, enpresa subkontratatu haren izena zeraman kirol-jertse moduko batekin.

Ainhoa Nadia Douhaibi Arrazola

OÑATI, 1983

Arrazismo instituzionalari buruzko liburua argitaratu berri du Salma Amazianekin batera: *La radicalización del racismo. Islamofobia de Estado y prevención antiterrorista* (*Arrazakeriaren erradikalizazioa. Estatuaren islamofobia eta prebentzio antiterrorista*); Cambalache, 2019. Aurretik parte hartu zuen deportazioen inguruko *Paremos los vuelos* (*Geldi ditzagun hegaldiak*) liburuan ere (Cambalache, 2014). Gizarte hezitzaile gisa lan egin du hainbat urtez, baita interkulturalitate teknikari gisa ere, Bartzelonako udalean. Islamofobiaren aurkako militantea eta militante antiarrazista gisa ere jarduten du hainbat espazio eta kolektibotan (Tanquem els CIE, Assemblea Antiracista de Barcelona, Stop Deportación), eta gaur egun Universitat Oberta de Catalunyako irakaslea da.

Mutiko gazte pila bat ziren, laurogei, oker ez banago, eta lau hezitzaile eta bi zaindari ginen. Imajinatu soinua fabrika zahar hartan. Ez zegoen leihorik, uda hasera zen, eta sekulako gosearekin zetozen. Eta lehen gauza, dutxak. "Orain eskuoihalak banatu behar dituzu". "Orain janaria eman" –janaria burdinazko erretiluetan ematen zen, ezin zen errepikatu...–. Eta afaltzen geundela, ez dakit zeren harira mutiko handikote batek beste bati goitik behera, danba! Sekulako kolpea eman zion. Mutikoaren buruak mahaia jo zuen eta danbatekoak zortzi edo hamaseirentzako zen mahai hura hankaz gora jarri zuen. Eta nik nola hala esan nion "hau ez dago ondo eta ezin duzu egin", eta tipoak begiratu zidan eta bere begietan irakurri nuen "ze ostia azaldu behar didazu zuk nire bizitzari buruz?". Egun horretatik aurrera apur bat konturatzen joan nintzen non sartu nintzen.

Nola kokatu egoera horretan? Nola irakurri errealitate hori?

Begi-bistako biolentzia asko dago –eta gero gauza asko eta oso politak ere bai!–. Baina, ingurua bera da biolentoa. Ez zeukaten intimitaterik, burdinazko ohez betetako logelak ziren, ez zieten aski arropa bero ematen neguan, eta hala eta guztiz ere, mutikoen problema nagusia ez zen hori. Haien egunerokotasunean larritasunak ziren "non daude nire paperak?", "zergatik ezin dut lan egin?", "zergatik ezin dut zentrotik nahi dudanean irten?". Eta mutilek hemezortzi urte betetakoan, paperik gabe kalera botatzen zituzten nora joanik gabe. Pixkanaka hasi nintzen begirada beste alderantz zuzentzen, ez hainbeste mutikoek zer egiten zuten, baizik eta administrazioak, instituzioak, hezitzaileek zer egiten zuten, edo zer ez zuten egiten. Denbora bat eman nuen lanean hastetik ana-

lisia egitera. Politizatu egin nuen egiten nuen lanarekiko nire begirada.

Hizki larrizko politikak ere hizpide izan ditu gazteok duela ez hainbeste. Iazko azaroaren 5eko hauteskunde debatean Santiago Abascalek MENAk –gurasoengandik banatuta diren 18 urtetik beherako atzerritarrak– izan zituen hizpide: *manada* hitza erabili zuen haiek aipatzeko, eta talde bortxaketekin lotu zituen zuzenean. Deigarria da noiz eta nola hitz egiten den gazteon inguruan; nork hitz egiten duen eta nork ez duen hitz egiten...

Esanguratsua da ikustea zein den gazteon ikusgarritasuna. Eskuin muturrak aipatzen dituenean dira ikusgai, baina, aipatzen ez dituenean desagertu egiten dira. Eta besteek gazteoi buruz hitz egiten dutenean eskuin muturraren arrazismoa azpimarratzeko egiten dute, arrazismoa eskuin muturrarena soilik balitz bezala, ezkerra bekatutik libre utziz. Baina ezkerrarena ere bada ardura gazteok mediatizazio maila honetara orain eta horrela iritsi izanarena, ez? Ez dugulako haietaz hitz egiten ez bada VOXi buruz hitz egiteko, eta ez dugulako arrazismo instituzionalaz edo egiturazko biolentziaz hitz egiten. Eta VOXek gazteon gaia instrumentalizatu dezake soilik gaiak tresna gisa funtzionatzen baldin badu. MENAk ez ditu VOXek asmatu, kategoria hori eta kategoria horrekin lotzen den ideia sarea VOX sortu aurretik ere hor zegoen. Eta horretan erantzukizuna fakzio politiko guztiek, komunikabideek eta gizarte osoak dauka. VOX arazo bat da, baina, ez da arazoaren muina.

> *“Mossoak eskoletara sartzen dira irakasleei formakuntza ematera eta gero irakasleak beraiek dira polizia lana egiten dutenak”*

Zuk eta Salma Amazianek argitaratu berri duzuen liburuan aipatzen duzue, arrazismoaren erradikalizazioa eta estatu islamofobia. Izenburuak dagoeneko badu bere ironia, erradikalizazioa hain justu ere gehiago lotarazi digutelako islam, musulman edo jihad bezalako kontzeptuekin.

Dena esan behar bada, izenburua nahiko poperoa da. Funtzionatzen duelako nahi genuenerako. Guk nahi genuena zen eztabaida piztea eta elkarrizketak sortzea. Ez gara arrazismoari buruz hitz egiten ari, ez gara estatu islamofobiari buruz hitz egiten ari, eta ez gara politika antiterroristak aurrekoekin duen loturaz hitz egiten ari. Egiten dugu berba seguritateaz, interkulturalitateaz, bizikidetzaz, inklusioaz... Besteak beste, arrazismoa tabu bat delako. Beste guztiaz hitz egiten da, eta arrazismoaz hitz egitekotan, besterenaz. Baina, arrazismoa hor dago, bizikidetzari buruzko diskurtsoetan, demokraziari buruzkoetan, legaltasunari buruzkoetan, are feminismoari buruzko diskurtsoetan ere.

Arrazismoaz hitz egiten dugu esateko arrazista dela magrebiarrei *moro* esatea edo immigrazioaren erabat aurka agertzea, baina, ez gara iristen arrazismoa ikustera gure gizartea, bizi garen espazioa, eta gure bizitzak eta heriotzak arautzen dituen ardatz baten gisan, eta are gutxiago horretaz hitz egitera. Gehienez ere ariko gara estereotipoez, aurreiritziez, desberdinkeriaz edo xenofobiaz. Baina, ez dugu xehetzen nola determinatzen duen arrazaren eraikuntza sozialak –alderantziz bezalaxe– gure generoa bizitzeko modua, gure klasea gorpuzteko modua, eta gure bizitzan posible dena eta ez dena, azken batean.

Liburuan diozu, hain zuzen, Mohammed, Bula edo Sraf izenek arrisku adierazle gisa funtzionatzen dutela gure artean. Eta generoaz ari zarela, zer gertatzen da, Nadiya, Fatima edo Aziza bezalako izenekin?

Jarriko dut eskolako adibide bat. Aurreko astean, Bartzelonan proiektu batean lanean ari ginela 25 bat urteko neska batek kontatu zigun –marokoarra da eta hijab-a darabil– txikitan sekulako barrabasa zela. Eta kontatzen zuen nola eskolan berari dena barkatzen zioten eta nola sekulako ahalegina egiten zuten ikasten jarrai zezan. Berak ikasi egin behar zuen, nonbait, ulertzen zelako bera etxean azpiratua zela, bere familiaren kulturak emakumea zapaltzen zuelako. Eta, orduan, mesede bat egiten ari zitzaizkion. Salbatzen, nonbait. Bere anaia, aldiz, adin bertsukoa izanik, izorratu besterik ez zuten egin. Bihurria izanik hura ere, arriskutsua zelako, nonbait. Genero eraikuntzak arrazaren eraikuntza sozialak zeharkatzen ditu eta arrazismo kulturala dago horren muinean.

Hain zuzen, Kataluniako eskola eremuko prebentzio politikak aztertu dituzu zuk. Zer gertatzen da estatu islamofobia eta estatu arrazismo horrek neurri konkretuak hartzen dituenean?

Charlie Hebdo-ren ondorengo 2015 hartan, Kataluniako Barne kontseilariak halako adierazpen batzuk egin zituen, esanez mendebaldeko bizimoduaren eta baloreen aurkako terrorismo global bat

azaleratzen ari zela. Ordura arte koordenada politikoetan irakurtzen zena koordenada kulturaletara pasa zen, terrorismoa helburu politikoak lortzeko baino, bizitzeko modu batzuk suntsitzeko tresna bihurtuz. Eta gehitu zuen "gure bizilagun musulmanak kontrol berezia eskatzen duten gizataldeak" direla. Eta horixe izan zen *erradikalizazioaren prebentziorako protokolo* deitzen dituzten horien irteerako pistola-tiroa. Eta prebentzio hitzak halako konnotazio positiboa duenez –nola egongo da gaizki okerrekorik gerta ez dadin aurreikuspenez jokatzea?–, denok isilik. Baina, prebentzio hori soilik populazio jakin bati dagokio, eta halako fase aurre-kriminal bat eraikitzen du, printzipioa argia baita: populazio musulmana bere osotasunean zelatatu, eta gero galbahea pasa, ikusteko nork merezi duen zaintza zorrotzagoa eta nork ez.

Esku-eskura dituzte horretarako *think tank* eta gobernu-lobby mordo batek erradikalizazioaren prebentziorako sorturiko teoriak. Zergatik hitz egin geopolitikaz eta geoekonomiaz, eta zergatik eztabaidatu Espainiako Estatuaren, AEBen zein Iparralde Globalaren kanpo-politikez, terrorismoaren arazoaz hitz egin daitekeenean, ezta? Are gehiago atentatuak Europako lurretan gertatzen ari direnean.

Eta zein da potentzialki arriskutsu?

Teoria hauen arabera, islamaren zenbait adarretako pertsonek halako aurretiko joera psiko-kultural batzuk lituzkete, ekintza bortitzak burutzera eramango lituzketenak. Pentsamenduaren eta ekintzen arteko marra zuzen bat marrazten dute, bi elementu gurutzatuz: alde batetik, arrisku faktoreak eta bestetik erradikalizazio adierazleak. Arrisku faktoreak lirateke prekarietatea edo marginaltasuna, esaterako. Eta erradikalizazio adierazleak, aldiz, praktika soilak, maiz erlijioari loturikoak, alegia, izan liteke hijaba janztea, norbere herrira bisita egitetik itzultzean eskuetan henna edukitzea, janzkera jakin bat, bizarra uztea, otoitz egitearen ondoriozko seinalea edukitzea kopetan, Al Andalus-en historiaz egiten den irakurketarekiko kritiko azaltzea, gaur egungo sistema politikoarekiko desadostasunak edukitzea, Israel eta Palestinaren arteko gatazkarekiko interesa… Edozer izan liteke erradikalizazio adierazle.

Prebentzio hau, edo kontrol mekanismo hauek, praktikan ze neurri dira?

Ba, Mossoak eskoletara sartzen dira irakasleei formakuntza bat ematera eta gero irakasleak beraiek dira polizia lana egiten dutenak. Erradikalizazio adierazle izan daitekeen zerbait ikusten dutenean, informazioa pasatzen diote poliziari. Hirurehun aktibazio egon dira bi urtetan. "Ez dakit zer gertatzen zaion Mohammedi, baliteke beharbada zerbait egotea aldaketa honen atzean…" eta Mossoei deitzeak dakar eskola zuzendaritzak, tokiko polizia indarrek eta eskola-psikologoak esku hartzea. Eta erradikalizazio teoria nagusien arabera, erradikalizazio prozesuak gertatu ohi dira idekidura kognitibo bat gertatzen delako, alegia, etxekoek zein lagunek eragindako ideia aldaketengatik, funtsean. Eta beraz, lagunak eta etxekoak ere zelatatzea komeni da, noski. Zer egiten du lagunekin dagoenean? Non dago bere aita? Ze meskitatara joaten da? Zer esaten dute meskitako imamek? Protokoloaren aktibazio bakoitza herritarrak zelatatzeko dispositibo basati bat da. Zeren, terrorismo arriskua ez da inoiz bukatzen. Inoiz ez. Eta mehatxua hain da handia… Ez da "beharbada diru-zorro bat lapurtuko du", ez, kontua da beharbada jende asko hilko duela.

Eta iristen da Kataluniako *proces*-a, eta CDRei terrorismoa leporatzen diete, terrorismo "jihadista"ren harira trebatutako diskurtsoak aplikatzen zaizkie, eta jende guztiak erreakzionatzen du: "Estatua zoratu egin da!". Eta aldiz, musulmanen mehatxua erabat barneratua dugu, eta sentsibilizatuta egon arren, metroan baldin bazoaz eta mutil marokoar batek motxila ahazten baldin badu zure aldamenean, hanka egingo duzu. Guk geuk identitate jakin batzuk arriskuarekin oso tripetatik lotzea lortu dute.

Honen aurrean nondik hasi behar dugu lanean?

Ba beste ordena sozial bat nahi badugu, oraingoak nola funtzionatzen duen ulertzen ez badugu alferrik da. Eta nik arrazismo instituzionalean jartzen dut fokua ze behin Ambalavaner Sivanandan-i entzundakoak nire eginez, begira, "niri berdin zait zu arrazista zaren edo ez zaren, egin nahi duzuna, arrazista baldin bazara arazoa zurea da, zeu zara baboa". Niri interesatzen zaidana da nire ahizpak eta nebak ez deportatzea eta poliziak ez tratu txarrik ematea, adibidez. Ez zait ardura zu moralki nolakoa zaren. Niri jende honen egiturazko biolentziak bizitza ez baldintzatzea interesatzen zait. Nik hortik ikusten dut bidea, zeren aldaketa subjektiboak, ba ondo daude, noski, baina, gure subjektibitateak bostehun urteko proiektu zibilizatzaile batek eraiki dituenez, horien deseraikuntzatik abiatzeko denbora asko behar dugu, eta estatu arrazismoak eta arrazismo instituzionalak sortutako bortxekin amaitzea erabat premiazkoa da. ●

Zaborraren kudeaketa

ESTITXU GARAI ARTETXE
EHU-KO IRAKASLEA

Apirilak 5ean izango dira EAEko hauteskundeak. Iñigo Urkullu lehendakariak iragarri zuen. Ez edozein egunetan. Zaldibarreko zabortegiaren luizia gertatu eta lau egunera. Tragedia gertatu osteko bere lehen agerraldian.

Aurrerapenerako argudio ofiziala: herritarrok kanpaina amaigabetik askatzea. Alta, ez da puntako analista izan behar atzean Euzkadi Buru Batzarraren kalkulu elektoralak zeudela ebazteko. Orduan, ez dakit zer ondorioztatu: edo ez zuten Zaldibarreko krisiaren larritasuna ondo neurtu, ala fede handia zuten zaborra estaltzeko gaitasun komunikatiboan, ala harrokeriak itsutu zituen. Ziurtasun handia behar baita horrelako krisi baten aurrean, hausnartutako abantailazko agertokia aldatu ez dela ebatzi eta hauteskundeen deialdia berdin mantentzeko.

Larrialdi-egoeran isiltasuna bidelagun eskasa izan ohi da. Areago ondorioak ikusgarriak eta ukigarriak –baita usaingarri eta irensgarriak ere– direnean. Hildakoak daudenean. Beren gorpuak agertu zain familiak sufrimendu latzean daudenean. Ideologikoki estimu handian ez dudan, baina krisi-komunikazioan aitortutako esperientzia duen Frank Luntz aholkulariak dio isiltasuna portaera ez-zuzenaren onarpen tazitua dela. Eta horixe izan zen Jaurlaritzaren lehen hautua.

> Hauteskundeak oso hurbil daude, eta Zaldibarren oihartzuna hautetsontzietaraino iritsiko dela, ez da zalantzarik. Nola, ikusiko dugu

Kudeaketa penagarriaren aurrean gaude. Eta ez naiz komunikazioaz bakarrik ari. Hasieratik dario kiratsa zabortegi horretan gertatzen zenari, eta zenbat eta gehiago jakin, jendearen haserrea areagotuz doa. Nola ez du honek hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida berriro lehen lerrora ekarriko, gaur egungoak gainezka egin badu, kaka irensten ari bagara.

Jendartean beldurra ere badago, noski. Bereziki hurbilen dauden herrietan. Erakundeetan konfiantza galdu da. Iturri ofizialak ezkutuan, informazio kontrajarria eta inprobisazioa izan dira nagusi. Gaur: ez dago hondakin arriskutsurik; bihar: erreskate lanak eten. Gaur: ez du airean aparteko eraginik izan; bihar: itxi etxeetako leihoak. Orain: lasai, ez da ezer gertatzen, atera haurrak parkera; eta geroxeago: lehen mailako futbol partida bertan behera utzi. Jendearen osasunean eragin zuzena duten gaietan ezin da horrelako zalantzati eta ilun jokatu.

Nabarmena da, hasierako informazio-lorrinaren ostean, gobernukide diren alderdi jeltzalea eta alderdi sozialista komunikatiboki egoera berbideratu nahian hasi direla. Badirudi batik bat EAJ dela gestio txarraren ondorioak pairatzen ari dena. Bere markari, eta ondorioz boto aurreikuspenei, negatiboki eragin diezaioketen bi alor bideratu eta landu nahian dabiltza. Batetik, Urkullu lehendakariaren irudia. Bere hurbiltasun falta nabaria izan da, harrokeriaz josia eta gizatasunik gabea. Urkulluk aurretik zuen hotz itxurarekin bat egiten du erabat erakutsi duen jarrerak. Oso hautemate kaltegarria hautagai batentzat. Bestalde, EAJren marka irudiaren indar-gune nagusietakoa da kudeatzaile on gisa pertzibitua izatea. Gertakariek eta ebidentziek, kasu honetan, kontrakoa adierazten dute.

Hauteskundeak oso hurbil daude, eta Zaldibarren oihartzuna hautetsontzietaraino iritsiko da, ez dago zalantzarik. Nola, ikusiko dugu. Denon hobe beharrez espero dezagun egoera ahalbait arinen bideratzea eta erreskate lanak burutzea. Horrek ez du esan nahi, ordea, gertatutakoa ahaztu eta zurituko dugunik, batez ere, berriz gertatu ez dadin. ●

Anti-pedagogiaz

ANTTON OLARIAGA

ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Heziketa esaten zaio, haurren subjektibotasunean esku hartzeko eta beren pentsamendua eta jokabidea zuzentzeko antolatua den forjaketa lanari. Beren izaera nolakoa izan behar den aldez aurretik diseinatzea, eta horretarako beharrezkoa den makinaria martxan ezartzeari, alegia. Maila batean ala bestean, forma esplizituago ala inplizituagoan, horixe da heziketa. Eta helburua lortzeko teknika eraginkorrenak ikertzeaz eta asmatzeaz arduratzen den zientzia, pedagogia. Nahitako prozesua da, ongi kalkulatua, ebaluazio eta peritaje zorrotzetara sometitua.

Helduok, erraz ikusten dugu manipulazioa gure pentsamendua edo jokabidea aldaraztea helburu duen edozein botere -praktikatan. Haurrei dagokienean, ordea, sistema oso bat antolatu eta dugu asmo huts horrekin, eta praktika normala iruditzen zaigu gainera hori egitea, hurrengo belaunaldiak zentzatzea edo kontrolatu nahi izatea gauza erabat naturala balitz bezala. Lotsagabeki, hori egiteko erabateko zilegitasuna aitortu diogu geure buruari, eta galdetu ere ez diogu egiten horretarako eskubidea edo baimena ba ote dugun.

Garai bateko eskolari erraz antzematen zitzaion funtzio hori, agerikoak zituelako prozedurak, asmoak, moduak. Horregatik, betidanik existitu dira eskola-eredu klasiko horri kritikoak izan zaizkion ahotsak, bai eta eskola beste zerbait izatea nahi luketen hezitzaile borondate onekoak ere. Sistema konbentzionalaren kritika, hezitzaile aurrerakoi guziok konpartitzen dugun abiapuntu erraza da. Eztabaida, baina, egungo eskola ustez erreformatuaren ingurukoa da. Benetan den ala ez oso bestelako zerbait, ala egungo denboretara egokitzeko instituzioak behar zuen aldaketa kosmetikoa baino izan ez ote den.

Ez dezagun ahantz, gizarte okzidentalen ezaugarria da autoritarismoa ezkutatu nahi izatea, hiritarrak azpiratzeko prozedurak ikusezin bilakatu eta dominazio-teknologia psikiko eta sinbolikoagoaren bitartez eskuratu nahi izatea jendearen gaineko kontrola. Biolentzia esplizitua eta erabili behar izan gabe erdietsi ahal izateko helburuak, ageriko boterekeriarik gabe. Eskola instituzioari buruz ari garelarik, eskolaren pedagogia inplizitua osatzen duten elementuen erreformaren bitartez lortu du eskolak itxuraldaketa. Denak bere horretan segi dezala, baina dena erabat aldatu delako itxura emanez.

Ezagutzen dugun heziketa-eredua errotik aldatu nahi baldin badugu, heziketatik bereiz ezinak diruditen dogma batzuk auzitan jartzen hasi beharko dugu. Hasteko, eta adibidez, zuzendu beharreko hutsak dituztela haurrek. Huts horiek zein diren erabakitzeko eta zuzentzeko gaitasuna duen talde berezitu bat dagoela, hezitzaile eta pedagogoona alegia; eta horiei baino ez dagokiela heziketa. Beharrezkoa dela haurrak komunitate naturaletik ateratzea, eta konfinamendu moduko itxialdian edukitzea. Heziketak derrigorrezkoa behar duela. Prozesuaren ebaluaketa zorrozki egin behar dela. Noski, haurren hobe beharrez ari garela.

Egungo eskolak ongi definitu ditu irakasle on eta ikasle on-aren perfilak. Eskolaren kontrako gorroto handirik sorrarazi gabe, eskolaren helburu klasikoak –otzantzea, autoritate eta jerarkia printzipioak igortzea– lortzen dituena jotzen da irakasle ontzat. Ikasle ona, sisteman aktiboki parte hartzeko duen margen tipiaren bidez kritikotasuna agerturik ere, sistemaren ontasuna funtsean onartzen duen hori. Egungo gizartearekin antza handiegia duelako hartzen diot susmo txarra oraingo eskola erreformatuari. Zuek ez? ●

Kultura eskola

ENEKO OLASAGASTI
ZUZENDARIA ETA GIDOILARIA

Hitz politak biak, bai banaka hartuta baita elkarren ondoan ere. Hezkuntzarekin eta Kulturarekin ardura dugunok, profesionalak izan ala ez, elkarren ondoan ikusi nahiko genituzkeenak. Tira, dagoeneko ikasgai batzuk txertatuta daude curriculumean. Musika, literatura eta plastika, adibidez. Baina badira itzulinguruka dabiltzanak ere, antzerkia, dantza, ikus-entzunezkoak... Eta curriculum horretan txertatuta ikusi nahiko genituzkeenak asko gara. Hala ematen du, behintzat, ikusita zenbat jendek erantzun zion *Kultura eskola* izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) antolatu zuen goiz bateko jardunaldira, EHUko Donostiako Carlos Santamaria aretoa lepo betez. Antolatzaileak ere harrituta azaldu ziren jasotako erantzunarekin. Hainbat adarretako profesionalak, zaleak eta hezkuntza munduko jende asko.

GFAren xedea, omen zen Eskola Kirola ekimenaren antzerakoa antolatzea kultur arloko hainbat adarrekin. Hori azaltzea zen jardunaldiaren asmoa. Eta espektatibak ez zirela gehiegi bete esan beharra dago. Saioaren lehen zatian, han-hemenka, normalean pertsona konkretuei eta ikastetxe batzuei esker antolatzen diren ekimen batzuen berri eman zen. Lehen zati horren bukaeran Aldundiaren ekimenaren berri eman ziguten. Bigarren zatian taldeak sortu ziren proposamenaz eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko. Bertan ginenoi paper batzuk luzatu zizkiguten, gure ekimenak horrelako egitasmoaren baitan ikusten genituen jakiteko. Azken batean, kontua ekimen desberdin eta ugariekin katalogo moduko bat sortzea zen. Katalogo hori ikastetxeei eskaintzen zaie beraiek haien gustukoa edo egokitzen zaiena aukeratu ahal izan dezaten. Hori 2020-2022 ikasturterako martxan jarri nahi da eta horretarako 260.000 euro daude. Kultur supermerkatu baten modukoa otu zitzaidan. Bertaratu zirenak ikusita, bai profesionalak eta ikastetxeak, gehi batu daitezkeenak, eskaintzak eta eskaerak aise gainditu dezakete ekimenerako zuzendutako dirua, eskasa nire ustez. Euskal Aktoreen Batasunetik (EAB) antolatzen dugun *Sormenaren parte izan* antzerki egitasmoa 15.000 euroren bueltan dabi, besterik ez. Beraz, berriz ere, apurrak banatzen gosetuen artean. Eta ez dut honekin intentzioa kritikatu nahi, baina bai berau gauzatzeko modua.

Eta kontua ez da bakarrik dirua, formakuntza baita ere. Formatzaileen formakuntza, ez baitugu ahaztu behar haurrez eta nerabeez ari garela. Nork formatzen ditu arlo horietako formatzaileak. Urte batzuk daramatzagu horren gainean pausuak ematen hasteko garaia dela esanez. ●

Etxebizitza babestuaz

ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Etxebizitza. Soldataren herena batez beste. Ezabatu ezin den gastu finkoa. Lan soldatapekoaren oin-bilurra, olagarroaren tentakulua. Kateak luzera nahikoa du esklaboak sistemaren mekanismoak eragin ditzan. Bere bizitza xehatzen duen errotarria birarazten duen astoa.

Iruñeko Udalak hedabideak deitu zituen bere jabegoko 43 etxebizitza, erabilera sozialekoak izan beharko luketenak, okupa zikin eta gaiztoen eskuetatik askatuko dituztela iragartzeko. Prentsaurrekoan emandako datuetan ikusten da 603 etxebizitzetatik 190i (%31) udalak ez diola erabilerarik ematen –horrek azaltzen du, bide batez, zergatik okupatzen diren–. Ongizatearen gure gobernuek bitartekoak, hau da, *petatxoak* edo *puntalak*, jartzen dizkiete zaurgarritasun egoerei. Arrakalaz jositako eraikin hondatu horren iraupenaren luzapen artifizialak. Baina, gainera, horiek uneko agintarien asmo onaren erabat menpekoak dira eta paperatik errealitatera zuritik beltzerako distantzia egon daiteke. Nafarroan 900 etxebizitza pasa dira egunetik gauera babestuak izatetik libreak izatera. Alokairuaren prezio berria ordaindu ezin dutenen egoerari konponbidea bilatzen saiatuko direla dioen bitartean, inuzente itxurako elefante bat dago eserita Jose Mari Aierdi Nafarroako Gobernuko sailburuaren ondoan, kapitalismoaren zirkotik ihes egin duena. ●

Zaborrak

JON ALONSO
IDAZLEA

Zaborrak, hondakinak, zarama, zakarra, lohiak... Euskarak ez ditu eskas sortzen ditugun soberakin gogaikarriak izendatzeko hitzak, ezin esan, hortaz, alde horretatik ongi hornitutako hizkuntza ez dela. Dena beharko da, antza.

Gure auzoan (ni ekialdeko erkidego autonomokoa naiz, kasu) bosgarren edukiontzia jarri zutenean, auzokide batek, dagoeneko jubilatuak eta bizitza erdia hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten gaietan ibiliak, destinora iristean hondakinak nahasten zituztela gaztigatu zigun erdi-ahapeka, lagun batzuei. Ez genion erabat sinetsi –ez nion, bederen–, eta gehiegikeria bat zela pentsatzea nahiago izan nuen; bai, gertatuko zen inoiz, igual, litekeena zen batzuetan, baina beti-beti... ez zela sistematikoa izango pentsatu nahi nuen.

EAEko fabrika batean lan egiten duen beste adiskide batek esan zidan lehengoan (boladako gaia baita mendebaldeko erkidegoan, begi-bistako arrazoiak medio), berak bereizten dituen plastikoak dagoeneko bere sudurraren aurrean nahasten dituela horiek jasotzeaz arduratzen den enpresa espezializatuak; lehen ere berdin egingo zutela, baina fabrikatik urruti egiteko detailea zaintzen zutela; orain hori ere ez.

> Zaldibarko hondamendia eta gero, makina bat gizon inportante irudikatzen ditut, denek erantzukizuna berea ez dela aldarrika bilera gogor-liskartsuetan, denak pagaburuaren bila, denak zikinkeriatik makularik gabe ateratzeko ahaleginetan

Zaldibarko hondamendia eta gero, makina bat gizon inportante irudikatzen ditut (eta emakumeren bat ere bai, gutxiengoan, hori bai), denek erantzukizuna berea ez dela aldarrika bilera gogor-liskartsuetan, denak pagaburuaren bila, denak zikinkeriatik makularik gabe ateratzeko ahaleginetan: bi langile gutxiago, inori axola al zaio? Ez da zaila imajinatzea hondakin toxikoak eta kutsakorrak merkeago kudeatzeko mesedeen eta eskupeko milioidunen bidezko merkatu beltz bat. Nobela ikaragarria dago hor, informazio pixka bat, imajinazioa eta talentu aski dauzkanaren zain.

Bere oparotasunak sortzen duen kakatzan itotzen ari den sozietate bat gara, eta honez gero ez da metafora bat, errealitatea baizik. Sozietate hipokrita bat, arazoaren aurrean ez-ikusiarena egiten duena, gainera. Joan den legegintzaldian, Gipuzkoako Aldundiak jendeari gai honetan inplikazio pertsonala eskatu ziolarik, badakigu nola bete ziren balkoiak plastikozko poltsez. Enpresa espezializatuek gure kontzientziak garbitzeko balio dute, hondakinak egoki kudeatzeko baino areago. Negozio biribila ba denentzat: haiek alfonbra azpian sartzen dute denon kaka, administrazioak eta enpresariek ederki ordaintzen diete, eta guk ekologistaren kontzientzia lasaiaz egiten dugu lo. ●

Autobideetako zein aparkalekuetako hesiak irekitzen ditu!

Bertsio eguneratua eta potenteagoa!

Gero eta autobide eta aparkaleku gehiagotan!

Egungo deskontu-sistemarekin jarraitzen du!

Orain Frantzia osoan ere bai!

GOGOAN IZAN *abiatu 2.0* BERRIAK ESKAINTZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGIk teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat atera du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera…

Abiatu gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko abiatu.bidegi.eus-en eska dezakezu gailu berria.

Eskatu!

BIDEGI

Informazio gehiago: info@bidegi.eus | 943 105 106 | GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil

KURDISTAN, ROJAVA

Amesgaiztotik ezin esnatu

Ehunka hildako eta ehunka milaka iheslari utzi ditu Turkiaren azken erasoaldiak Rojavan. Giza krisia handitu heinean, galderak ere pilatzen hasiak dira Siriako kurduen etorkizunaz.

KARLOS ZURUTUZA ANDONI LUBAKI

Neskatila bere hartzatxoarekin bala-zuloz beteriko paretaren aurrean, Tel Nasri herrian, frontetik kilometro gutxira.

Tel Tamer eremuan aire eraso batean hildako gerrilari baten ama hiletan negarrez.

Hitzordua 14:00etan zen baina familiak aspaldi heldu dira. Tirbespiye-ko hilerrian agur esango diote gaur Yousif Ahmadi: bertan jaio zen duela 28 urte, eta bertan hilobiratuko dute. *Shehid namirin*, oihu egin du jendeak, "martiriak ez dira inoiz hiltzen", laukote batek Ahmadiren hilkutxa furgoneta batetik atera duenean. *Shehid namirin*, berriz, hilerriko eskaileretatik jaistean. Ahmadiren aita, ama, anaia eta arreba, baina, isilik daude, negarrari eusten. Iragan urriaren 9an, Turkiak bere azken erasoaldia burutu zuen Siriako iparraldean. Bake-iturria izeneko operazioan airez bidali zituen droneak eta jaurtigailuak, eta lurrez jihadista andana. Armak eta uniformeak gutxi ez, eta izen bat oparitu die Ankarak Al Kaeda eta gertuko milizien artean erreklutatutako borrokalariei: "Siriako Armada Nazionala". Mugan zehar, lur esparru bat menderatzea zuten helburu, baita Siria iparreko autobide nagusia ere, M4 izenekoa. Tirbespiyen diote Yousif Ahmad "errepidean" hil zutela.

2018ko urtarrilean, Ankarak Afrin eskualde kurdua hartu zuen mendean, aire-indar eta jihadistez osatutako *Blitzkrieg* taktikaz. "Olibondo adarra" deitu zioten orduan. Azken erasoa egiteko aitzakia ondokoa izan da: Siriako Indar Demokratikoak-SDF (kurdu, arabiar eta kristauez osaturiko kontingente armatua) mugatik kanporatzea. Ankararen aburuz, "estuak" dira SDF eta PKKren arteko loturak. Hiru hilabete igaro dira ordutik eta bertako GKEek diote ia 300 zibil hil direla, eta Nazio Batuen Erakundeak 200.000 desplazatu baino gehiago. Serekaniye eta Gire Spi mugako eskualdeek osatzen dute "zero gunea". Ihes egitea lortu dutenek, beste nonbait bizi diren senideengana jo dute. Gehienek, baina, abandonatutako eskoletan bukatu dute, edo Washokaniko errefuxiatu gunean.

LABIRINTO BAT

Lokatz eta plastikozko itsasoa da Washokani. Bertan, dozena erdi bat zulakarik dihardute lanean, gau eta egun. Honaino iristen den giza isuriari nekez eutsi ahal zaio. Kanpalekuaren sarreran, etxe prefabrikatu baten barruan, Ilargi Erdi Gorri Kurduaren arduradun batek dio 4.000 pertsona daudela bertan. "Egunero beste familia bat datorkigu", gaineratu du. Erraza da plastiko zuriko denden labirintoan galtzea. Askotan ur-depositu gorriak hartu behar dira erreferentziatzat, edo denden artean eskegitako arropa. Bestela, beti jo daiteke kanpalekuaren erdian dagoen karpa handira. Ospitalea da eta, ezinezkoa dirudien arren, Ayan, Mahmud eta Suriya han jaio dira berriki.

Handik gertu, Ranyak dio Serekaniyetik oinez egin zuela ihes bere bi semeekin. Ez zegoen ibilgailurik. Senarra 2013an galdu zuen, hiria Jabhat al Nusraren (Al Kaedaren adarretako bat Sirian) setiopean zegoela. "Gorriak ikusi arren, etxean gelditu ginen orduan. Baina oraingo honetan desberdina izan da dena", dio 37 urteko emakume kurdu honek. "Airetik, toki guztietatik iristen ziren proiektilak. Eta gero jihadisten mehatxua zegoen... Beren eskuetan eroriz gero, bagenekien bortxatu egingo

YPG gerrilako soldadu bat, Tel Nasri-ko checkpointean, yihadista eta turkiarren aurkako frontetik kilometro gutxira.

gintuztela; gutako askok aurpegia lokaztu genuen, edertasun izpi oro estaltzearren". Asko eta asko, ez zituen salbatu horrek. Ranyaren pareko dendatik, Hozamek keinu egin digu gerturatzeko. Gurekin hitz egin nahi du. "Bizilagun arabiar batek esan zidan mertzenarioek den–dena eraman dutela nire etxetik kamionetetan: telebista, hozkailua, altzariak... Argindarraren kableak ere ostu dituztela diote", azaldu du 53 urteko nekazaria izan zenak. Hainbat lursailen jabea ez ezik, elikadura denda bat ere bazeukan Hozamek Serekaniyen. Egun pasaportea besterik ez zaio gelditzen. Eskuan du denbora guztian. Halako batean, ireki egin du, bera ere noizbait Serekaniyekoa izan zela argi gera dadin.

Labirintoari ekin diogu berriro. Aminak eta Alanek ere etxea galdu dutela esan digute. Eta Hozamek. Denek. 82 urteko Hamuden etxeari teilak ere kendu dizkiote. "Paretak besterik ez omen dira gelditzen. Jende honek ez dio beldurrik jainkoari", esan du. Etzanda dago hiru mantaren azpian. Gaixorik eta nekatuta dagoela dio.

Zenbat testigantza jaso behar dira errefuxiatu gune batean? Nola aukeratu jendea? Zilegi al da aleatorioki egitea? Zer pentsatzen dute gutaz hitz egin gabe gelditu direnek? Eta hitz egin dutenek?

Jarraitu dugu. Hiyamek dio "behi bakar batekin" konformatuko zela. 15 zituen

Etorkizunak zer ekarriko duen jakin arte, zibilak egunero inprobisatzera behartuta daudela dirudi

Serekaniyen baina, etxearekin gertatu bezala, denak ostu zizkioten okupatzaileek. Abu Yousefen kasuan traktorea da. "Mertzenarioek 3.000 dolar eskatu dizkidate trukean baina ez nintzateke, inondik ere, berriz etxetik pasako. Jende asko bahitzen ari dira", azaldu du Gire Spiko gizasemeak. Antza, iheslari batzuek dirua eskaini diete jihadisteei beren etxeetan sartzen uzteagatik. Batzuk ez dira bueltatu. Istorio hori ere entzun genuen Hassakako eskola batean. Handik, Garibak esan zigun 100.000 dolar eskatzen dizkietela bere koinatua askatzeagatik. Familiak ez dauka ez diru kopuru hori, ezta bahitua bizirik dagoenaren seinalerik ere.

Testigantza gordin hauek jaso ditu Human Rights Watch nazioarteko erakundeak, besteak beste. Iragan azaroan, GKEak "zibilen exekuzioak, arpilatzea eta desplazatuen bidea moztea" leporatu zizkien Turkiaren babesa duten miliziei. Erasoaldia hasi eta egun gutxira "gerra krimenak" salatu zituen Amnistia Internazionalak.

ZIURGABETASUNA

Gerra ez da itzali. Su-etena adostu zen Washington eta Ankararen artean urrian, baina ia egunero errepikatzen dira kurduen eta islamisten arteko borrokak. Bestalde, Turkiak eta Errusiak

ISISek suntsitutako eliza baten barnean haurrak futbolean jolasten, Tel Nasri herrian.

patruila amankomunak egitea adostu zuten. Ibilgailuen konboia kurduentzat iraingarria izateaz gain, Erdoganek indarrez lortutakoa aitortzen du Moskuk modu horretan. Mugan dagoen Derbesiyetik maiz igarotzen dira. Turkiak eraikitako harresiaren itzalpean dagoen herri hau bortizki bonbardatu zuen Ankarak urrian. Jendeak ospa egin zuen, Nadja Rihak tartean. Emakume kurdu honek 11 seme-alaba ditu, eta aiton amonak ere beraiekin bizi dira. Familiak Hassakako eskola batean baino ez zuen aterpea bilatu. Ikasgela batean hilabete eman ostean, Derbesiyera bueltatu ziren abenduan, jihadistarik ez baitago han egun.

"Dena erreta aurkitu genuen", kexu da Riha. Antza, jaurtigailu batek etxeko argi-sorgailua jo zuen, baita alboan zeuden gasolio bidoiak ere. Suntsipena, alabaina, ez da aldaketa bakarra izan azken hilabeteotan Derbesiyen. Nadjaren etxetik berrehun metrora Siriako Armadaren kontrol postua dago egun. Erasoaldiaren ondorengo hamaika akordioren artean, Damasko Rojavara bueltatzea ere adostu zen. Erabakiak kezka handia sortu zuen kurduen eta atzerritarren artean; eskualdetik ospa egin zuten nazioarteko kazetari eta GKEko langile askok. Ia denak Irakeko Kurdistandik sartu ohi dira azken zortzi urteotan, pasaportean Siriako bisarik gabe.

Erregimenaren presentzia agerikoa bada ere, armada Turkiako mugan zehar baino ez da zabaldu. Rojava eta Irakeko Kurdistan arteko muga-igarobidea kurduen kontrolpean dago oraindik; hauxe izan da, hain zuzen, kurduen "zilbor hestea" Siriako ipar-ekialdean. Proiektu politikoa dela eta, *de facto* administrazioak jarraitzen du eskualdea kudeatzen. Petrolioaren etekinez baino ezin dira mantendu bertako segurtasun indarrak, ordezkariak, administratzaileak, irakasleak –eskola eta unibertsitatekoak–, gidariak, kale-garbitzaileak, itzultzaileak... Sare hau noiz arte mantenduko den da galdera errepikakorrenetako bat Rojavan. Karwan, esaterako, Irakeko kurdua da baina bertako emakume batekin ezkondu zen duela lau urte. Bikoteak arropa denda bat ireki zuen Kamixlo hirian, eta beldur dira aurki itxi beharko ez ote duten.

"Gure negozioa erabat legala da hemengo administrazioarentzat baina Damaskok ez du honen berririk, ez da paperetan existitzen", dio Karwanek. Dendaria Siriako presidente Bashar al Assad "erabat" bueltatuko delakoan dago. "Azken zortzi urteotan irekitako dendak, te etxeak, ile-apaindegiak, hotelak eta abarrekin zer gertatuko den inork ez daki oraindik", dio gizonak.

Siriako telebista publikoan emandako elkarrizketa batean, Assadek honela iragarri zuen: "Armak berehala entregatuko ez dituzten taldeak egon arren, gure azken helburua gerra hasierako egoerara bueltatzea da". Esanguratsua zen, dena den, Siriako mandatari gorenak "kurdu" hitza hogei aldiz baino gehiago errepikatzea. Analista askoren ustez, ez da Assaden interesekoa SDFren kontra borrokatzea. Gerra luze eta bortitzak gogotik jo du bere indar armatuetan, eta Damaskok inoz berrekuratu nahi baditu Turkiak oraindik mendean dituen Idlib, Afrin, Jarabulus eta Serekaniye eta Gire Spi eskualdeak, SDFren laguntza beharko du.

Etorkizunak zer ekarriko duen jakin arte, zibilak egunero inprobisatzera behartuta daudela dirudi. Bajtiarrek, adibidez, Alepon bizi diren aitona-amonekin utzi ditu bere hiru seme-alaba, "egoera argitu arte". Auto mekanikaria da, eta irekita dauka bere Kamixloko garajea oraindik.

"Zure ustez zer gertatuko da hemen?", galdetu digu. Ez da galdera erretorikoa, erantzunaren zain dago. ●

Erreportaje hau Euskal Fondoak babesturiko "Exodoa, hondakinen artean ihesi" inbestigazioaren aurrerapena da.

MARCOS
okindegia
Benetako antzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

EUSKARA-GAZTELANIA ITZULTZAILE NEURONALA

EUSKARAZ GEHIAGO SORTZEKO BALIATUKO AL DUGU?



Atzo goizean barrez ari ginen, itzultzaile automatikoak euskarara ekarritako testu tamalgarriak interneten irakurrita. Euskaraz jakin ez eta makinak gaztelaniatik euskarara ondo itzuliko zuelakoan zebiltzan bateren batzuk. Barrez eta haserre, euskararekiko begirune gutxi sumatzen zelako. Gaur seko harrituta gaude tramankuluak asko ikasi duelako eta euskara-gaztelania hizkuntza bikoteko itzulpenak oso balekoak direlako. Hain dira onak, itzultzaile profesionalak ere kezkatuta baitaude.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Orotariko Euskal Hiztegiaren hamasei ale, bata bestearen segidan etxeko apalean. Bego Montorio itzultzaileak gogoan du Euskaltzaindiaren ale haiek denak apaletik kendu eta garajera eraman zituen eguna. Jarlekutik altxako zen eta aleetako bati helduko zion begiratu nahi zuen hitzaren lehen letraren arabera. Apala gertu zeukan, erreferentziak bilatzeko liburutegia, berriz, urrunago. Durangon bizita, deitu izan zion Donostiako lagunari Koldo Mitxelena liburutegian halako erreferentzia begiratuko zion galdezka.

Itzultzaile neuronala itzulpenak idazmakinaz egiten zituenarentzat ez da itzulpengintzan eman den jauzirik handiena, are gutxiago iraultza, oraingoz, bederen. “Internet izan zen niretzat benetako iraultza”, esango digu Montoriok. Begirada altxatu eta Uxoa Iñurrietari so egin dio, bestelako bizipenak izango dituelakoan, Montoriok 60 urte baititu eta Iñurrietak 30. Bai, Iñurrietarentzat bere lanbide bizitzako jauzirik handiena izan da. Ez du bestelako aldaketa esanguratsurik ezagutu itzulpengintzan. Iñurrietak itzultzaile jarduna ikerketarekin uztartzen du, eta doktoretza-tesia itzulpen automatikoaren inguruan egin du.

Montorio eta Iñurrieta EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteko kideak dira. Lehena itzultzaile beteranoa eta bigarrena hasiberria. Elkartean dagoeneko jardunaldiak egin dituzte itzultzaile neuronalak euskara-gaztelania bikote hizkuntzan lortu duen mailaz hitz egiteko. Aitortu dute sektorean kezkatuta daudela, baina ez beldurtuta.

MERKEAGO LAN EGITEKO ESKATZEKO ARRISKUA

Iñurrietak eta Montoriok ikusten dute tresna berriak buru-nekea gutxitzeko balio duela lan askotan, baina uste dute lan-baldintzek okerrera egiteko aukerak ere badaudela. Bezeroek arinago eta merkeago aritzeko presioa egin dezakete: makinak lana aurreratuko dizu, beraz, ordu gutxiagoan eta ahalegin gutxiagorekin egingo duzu lan. Montorioren iritziz, oso lan espezializatua da: “Lana hobeto egin dezakegu, eremu batzuetan arinago ere bai, baina lana oso espezializatua da. Nahiz eta itzulpen neuronalaren laguntza izan, prozesu bukaeran pertsona egotea ezinbestekoa da. Profesionalak, testuaren arabera, orain arte eskura izan dituen baliabideak –corpusak, itzulpen-memoriak, bere ezagutza...– eta itzultzaile neuronala uztartuko



ditu". Lan-baldintzez ari garela, Iñurrieta valentziar itzultzaileek kontatutakoarekin gogoratu da. Katalana-gaztelania hizkuntza parearekin lan egiten duten itzultzaileen kobraketa tarifa ez da aldatzen, berdin dio jatorrizkoa hartu eta itzuli duen ala dagoeneko makinak itzulitako testuaren gainean zuzenketak egin dituen. Hizkuntza pare horretan gainera, bien arteko distantzia linguistikoa oso txikia da eta itzultzaile neuronalak oso emaitza onak ematen ditu, euskara-gaztelania bikotean baino hobeak.

KALITATEA GORDETZEA HELBURU

Lan-baldintzez gain, mehatxurik garrantzitsuena testuak kalitatea galtzea da. Jendaurrean erakusteko edo beste norbaitek erabiltzeko testuak baldin badira, derrigor profesional batek zuzendu edo moldatu behar ditu. Montoriok eta Iñurrietak hala beharko lukeela diote, baina ez daude batere ziur hala gertatuko den euskara-gaztelania parearekin. Gaztelania-ingelesak eta gaztelania-katalanak, esate baterako, itzultzaile neuronalak elikatzeko testu masa handiak dituzte, eta bigarren hizkuntza parean gainera, oso gertuko hizkuntzak dira. Emaitza hobeak lortzeko berme handiagoa dute. Hala ere, makinek lana egin eta gero pertsonek zuzentzen dituzte testuak.

Bi itzultzaileek esan digute etorkizunean lanaren parte handi bat postedizioa izango dela. Euskara-gaztelania parean oraindik oso gutxi, baina bestelako hizkuntza pareetan aspalditxotik ari dira itzultzaileak postedizio lanak egiten. Zer da postedizioa? Eman dezagun informatika enpresa handi batek ingelesetik alemanera itzuli nahi dituela hainbat agiri. Bada, lehenbizi etxe barruan, beretzat prestatutako itzulpen neuronalean pasako du testua, eta ondoren itzultzaile profesionalari emango dio testua txukundu dezan. Alegia, profesionalak ez du testua itzuliko, baizik eta makinak itzulitakoa zuzenduko du.

Montorioren eta Iñurrietaren ustez, hizkuntza lautzeko, gure kasuan euskara homogeneizatzeko, arriskua dago. Itzulpen neuronalak bere logikaren araberako itzulpenak egiten ditu eta perfektua ez denez bere erarako akatsak egiten ditu. Itzultzaile profesionalak logika hori ulertzera moldatu beharko du. Bestalde, makinak aurrez eman zaizkion testuak baino ez ditu erabiltzen itzulpenerako eta beretzat aukera onena eta bakarra erakutsiko du. Euskara lautzearen arriskua azaltzeko Montoriok adibide bat eman du: "Proba egin dut. Gaztelaniaz idazten baduzu '*Uxoa es mi amiga*',

euskaraz ‘Uxoa nire laguna da’ itzuliko dizu. Elhuyarren, Vicomtechen eta Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoetan egin dut ariketa eta hiruretan emaitza bera da. Esaldi zuzena da, baina hori bezain zuzena da ‘Uxoa laguna dut’, are egokiagoago kasu batzuetan, eta hori ez dute inoiz proposatu itzultzaile automatikoek”.

Bada kontuan hartzeko beste gauza bat. Gehiena gaztelaniatik euskarara itzultzen da, eta beraz, makinari elikatzeko ematen zaion testu kopuru handiena gaztelaniaz sortua da. Horregatik, gaztelaniaren ordaina eskatu eta euskaraz jaso dugun testu zati hori oso litekeena da euskaraz sortua ez izana. Ez dago bi hizkuntzen arteko orekarik, eta adibidea gogora ekarrita, makinak erdarazko egiturari eutsiko dio.

Bi itzultzaileek zaindu beharreko alorrak aipatu dizkigute, erne ibili beharrekoak, teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak kalterako izan ez daitezen.

EUSKARAZ GEHIAGO SORTUKO DA?

Itzultzaile automatikoak oso egokiak dira administrazioetako testuak itzultzeko. Gaur egun jakina da eduki horien gehiengoa gaztelaniaz sortzen dela, eta gero euskaratu. Makinak itzulpen lanak erraztuko ditu, beste kontu bat da norabidea aldatu eta euskaraz gehiago sortzeko baliatuko den aukera. Adibide baten berri eman digu Iñurrietak. Orioko Udalak bere webgunean agenda eta albisteak euskaraz baino ez ditu eskaintzen eta irakurlea itzulpen automatikora bideratzen du, gaztelaniaz irakurri nahi badu. Bileretako aktekin beste hainbeste egin daiteke. Euskaraz jaso eta ulertzen ez duen langileak itzulpen automatikoan pasa dezake. Kontrakoa ere gerta daiteke. Administrazioko testuak euskaraz idazten trebatzen ari diren langileek amore eman dezakete eta di-da batean jasoko dute makinak egindako euskarazko itzulpena.

Teknologia jauzi handia. Baliabide esanguratsua itzultzaileentzat. Euskaraz sortutako testu kopuruak gora egiteko aukera aparta. Beste kontu bat da menpekoa den hizkuntzaren alde erabiliko den tramankulua. Goiz da aurreikuspenak egiteko. ●



ZER DA ITZULTZAILE NEURONALA?

Bi adar nagusi ditu. Batetik, sarea, alegia, prozesu matematikoa, eta bestetik, corpusa. Makina gaztelaniazko eta euskarazko testuz elikatuko dute. Sistemak zenbat eta gehiago ikusten duen –testuak, alegia– are gehiago ikasten du. Beraz, testu masa handia edukitzea emaitza onak izateko ezinbesteko elementua da. Jakina, eman zaion testua kaskarra bada sistemak erakutsiko duen emaitza ere kaskarra izango da. Jaten duena botatzen du.



AURREKARIAK

Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak diruz lagunduta, 2016 eta 2017 urteetan Modela ikerketa proiektua egin zuten Ametzagaiña, Elhuyar, ISEA eta Vicomtech enpresek eta IXA EHUko ikerketa taldeak. Euskara-gaztelania hizkuntza bikoterako itzulpen automatikoan zeuden teknika aurreratuetan ikertzea zen helburu nagusia. Esperimentuetan argi ikusi zuten ordura arte erabilitako sistemetan baino, sare neuronaletan oinarritutako sistemen kalitatea nabarmen hobea zela.

Bide itxaropentsua aurreikusi zuten enpresek eta halaxe izan da. Duela hilabete batzuetatik interneten daude testu zatiak euskaratik eta euskarara oso txukun itzultzen dituzten hiru itzultzaile neuronal.

HIRU ITZULTZAILE DENON ESKURA

Elhuyar Fundazioak *itzultzailea.eus* sistema dauka eta aldiro 100 hitz itzul daitezke. Vicomtech enpresak *batua.eus* tramankulua jarri du interneten eta kolpe batean 1.000 hitz itzultzeko aukera dago. Hirugarrena Eusko Jaurlaritzarena da, Vicomtech enpresak garatutakoa: *euskadi.eus/itzultzailea*. 4.000 hitzeko itzulpena egin daiteke. Itzultzaileok orokorrak dira eta herritar ororen eskura daude. Bai Elhuyar eta bai Vicomtech bezeroentzako sistema berezituak egiten ari dira. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak administrazioan erabiltzeko sistema propioa du, Vicomtechek garatua.

ZER DATOR?

Xabier Garcia de Kortazar Vicomtecheko kidea da. Itzultzaileak are hobeak izateko testu asko behar dela azpimarratu du eta euskarazkoak lortzea ez dela batere erraza: "Batzuek altxor moduan gordetzen dituzte eta beste batzuek askatu nahi izanda ere ezin dute, edukiaren anonimotasuna gorde behar dutelako".

Garcia de Kortazarrek ez du uste itzultzaile orokor bikaina lortzetik hain gertu gaudenik, errazagoa iruditzen zaio bezeroak eskatutakoaren arabera moldatutako itzultzaile berezituak garatzea. Erakunde publikoak gogoan dituela jarri ditu adibideak: Osakidetzari, Justizia Sailari, Ertzaintzari... bakoitzari berea egitea litzateke. Etxetresnak saltzen dituen enpresak gauza bera eska dezake, baita informatika enpresak ere. Enpresa askok dauzkate beste hizkuntzatan haientzako berariaz sortutako itzultzaile neuronalak.

Zer gehiago datorkigu?

Aurki izango ditugun bi aurrerapen teknologiko aipatu dizkigu:

-Berak itzulitako testuan zein zati ondo itzuli dituen eta zein zatitan zalantzak dituen adieraziko du itzulpen automatikoak.

-Corpusa hobetzen saiatuko dira, alegia, sistemari jaten eman zaion testua zuzenduko dute. Adibidez, euskarazko testuei Xuxen pasa dakieke.

Itzulpenarekin zerikusirik ez duten bi berrikuntza ere aipatu dizkigu Garciak: batetik, makina gai izango da testu baten laburpena egiteko, eta bestetik, ulertzeko oso zailak diren testuen bertsio ulerterrazagoak egingo dira. Azken horren bi adibide izan daitezke administrazioko testuak eta sendagaietako erabilera-orriak.

LANBIDEA EZ DA DESAGERTUKO

Elhuyar Fundazioak etxean erditu du "munstroa". Urteak daramatza itzulpen automatikoan lanean. Era berean, itzulpengintza zerbitzua du. Itziar Cortés itzulpengintzarako teknologien arduradunak kontatu digu nola etxeko itzultzaileei itzulpen automatikoaren emaitzak erakusten zizkieten, emaitzarik onena aukeratu zezaten. Lan zaila zuten itzultzaileek, itzulpenak txarrak baitziren. Orain bestelako arretaz aztertzen dituzte makinak egindako itzulpenak: "Esaten dute oso onaren eta oso onaren artean aukeratu behar dutela!". Txantxetan esaten dute lanik gabe geratuko direla. Itzultzaileen Elkarteko kide Bego Montorio eta Uxoa Iñurrietaren sentsazio antzekoa dute; kezka bai, baina beldurrik ez.

ZER ITZULIKO DU?

Batez ere administrazioko testuak itzultzeko da baliagarri. Testuok oso errepikakorrak izaten dira eta emaitza onak lortzeko errazagoa da. Gainera, administrazioak testu masa handiak sortzen ditu. Donostiako Udalean urtebete pasatxo daramate itzulpen neuronala erabiltzen. Beste hainbat administraziotan aztertzen ari dira eta Eusko Jaurlaritzaren Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala aurki hasiko da erabiltzen.

Horrezaz gain, bileretako aktak, webguneetako edukiak, salgaien erabilera-orriak, prentsa oharrak... itzultzeko egokia da. Itzultzaile profesionalek sistema ez dute herritar arruntek bezala erabiliko, ez dituzte testu zatiak sartuko interneten publiko dauden hiru tresna horietan. Beste baliabide asko dituzten bezala, haien eguneroko itzulpen-tresnetan txertatuko dute itzultzailea.

Eta nor ari da erabiltzen duela gutxitik edonoren esku jarritako itzultzaileak? Euskaratik gaztelaniarako itzulpenek adierazten dute euskaraz ulertzen ez duen jendea ari dela tresna erabiltzen. Izan liteke sare sozialetan txio bat ulertu ez duelako edo gurasoak seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzen ari direlako. Gaztelaniatik euskararako erabilerak ere milaka izan dira.



Zaldibarko zabortegian ez dute araudia bete eta Jaurlaritzak bazekien

Verter Recyclingen Zaldibarko zabortegiari dagokion Eusko Jaurlaritzaren 2013ko Ingurumen Baimen Bateratua eskuratu du ARGIAk. Baita zabortegi honetan 2018an isuri zituzten hondakinen Jaurlaritzaren datuak ere. Dokumentu publikoek beraiek erakusten dute zabortegian ez dela araudia bete. Adibidez, zabortegi horretan egoteko baimenik ez zuten 64.500 tona hondakin pilatu ziren 2018an, tartean hiri-hondakinak eta hondakin arriskutsuak.
Beste galdera hau ere zabalik dago: nolatan bota zuten amiantoa 2012an, baimena 2013an eman bazioten?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA DANI BLANCO

Zaldibarko Verter Recycling zabortegiak 2007an jaso zuen lehen aldiz Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Baimen Bateratua (IBB), "arriskutsuak ez diren hondakinentzako". Ordea, aldaketekin berritu egin zuen baimena 2013an Ingurumen Sailak, eta "karga organikorik gabea" zela ere erantsi zion definizio horri. Bi baimenak alderatuz gero, ikusten da 2013ko baimenak hondakin arriskutsu gehiagori ireki ziela atea.

Bi aldaketa nagusi ekarri zituen 2013ko IBBk: batetik, zabortegiak ordura arte debekatuta zituen hondakin mota batzuk hartzeko baimena eman zioten; eta bestetik, metalak eta konposatu metalikoak zabortegian bertan birziklatzeko baimena ere eman zioten. Bi aldaketa hauek "ez zirela funtsezkoak" ebatzi zuen Ingurumen Sailak eta ondorioz, ez zuten beste IBB bat emateko prozesua berrabiarazi. Horrek ekarriko zukeen tarte batez publiko egotea baimen berritua eta herritarrei alegazioetarako aukera uztea, eta beraz, baimen berritua lortzeko prozesua luzatzea edo korapilatzea.

Gardentasun ikuspegitik, salatu beharrekoa da 2013ko IBB ez zela publiko egin Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (2007koa bai), herritar orok ikusi ahal izateko.

27 HONDAKIN MOTA GEHIAGORENTZAT BAIMENA, TARTEAN AMIANTOA

Hasierako IBBk, 2007koak, 157 hondakin mota hartzeko baimena eman zion Verterri zabortegian. 2013ko baimenak, berriz, guztira 184 (ikus amiantoari buruzko koadroa). Jaurlaritzaren baimen berrituan hiru hondakin mota bereizten dira: 47 hondakin mota dira zabortegi batean ohikoenak behar luketen erakoak, hau da, bertan utzi direnak hondakin horiek balorizatzea ez delako bideragarria teknikoki, ekonomikoki edo ingurumen aldetik. 2013an baimendutako beste 11 hondakin mota zabortegi barruan eraikuntzarako erabiltzekoak ziren.

Baina deigarriena da, baimendutako hondakinen bi herenak, 126 hondakin motak, alegia, eskatzen zuela zabortegian hartu aurretik Ingurumen Sailari jakinaraztea eta honek berariazko baimena ematea hondakin karga horietako bakoitzarentzat. Zergatik? Hondakin horietako batzuen kasuan, izan zitezkeelako balorizatzeko modukoak EAEko beste azpiegitura batzuetan; eta hondakin horietako beste kasu batzuetan, izan zitezkeelako arriskutsuak. Azken hondakin mota hauei, "ispilu sarrera dutenak" deritzaie, eta adibidez, amiantoa da horietako bat, eta erraustegietako zepak beste bat. Ispilu sarrerak esan nahi du hondakin mota bera izan daitekeela arriskutsua edo ez arriskutsua, duen egoeraren arabera. Arriskutarritasuna neurtzeko karakterizazio berezi bat egin behar zaio. 2013ko Jaurlaritzaren IBBk onartutako hondakin

gehienak Ingurumen Sailaren baimen berezia eskatzen zutenak ziren, baina zehaztutako prozedurak bidea zabalik uzten zuen arriskutsuak izan zitezkeen hondakin asko zabortegian pilatzeko: batetik, enpresaren esku geratzen zelako arriskuaren karakterizazio hau egitea. Eta bestetik, Verterrek Ingurumen Sailera hondakin hauen berri bidali ostean, zegokion karakterizazioarekin batera, hamar egunen buruan Ingurumen Sailaren erantzunik jasotzen ez bazuen, baimendutzat ematen zelako hondakin hori.

2018KO ISURKETEN JAURLARITZAKO DATUAK: HOR EGON BEHAR EZ ZUTEN 64.500 TONA HORIEK

Erkatu dezagun Jaurlaritzaren 2013ko IBBk baimendutako hondakin moten zerrenda, 2018an Zaldibarko zabortegian isuri ziren hondakinen datuekin. Datu hauek ofizialak direla, Eusko Jaurlaritzak informazio publikoaren zerbitzuaren bidez igorritakoak. Ofizialak bai, ez, ordea, errealak: Zaldibarko zabor-jauziaz geroztik bertan deskargatu izan duten garraiolariek hainbat hedabidetan emandako testigantzak ikusita, herritarrak ez du modurik jakiteko zehazki zer eta zein kopurutan isuri zen zabortegi honetan. Baina datu ofizial hauen bidez ikus daiteke ea eman zitzaien baimena bete zuten.

Jaurlaritzak igorritako datuen arabera, 2018an guztira 334.875.595 kilo isuri ziren: biribilduz, ia 335.000 tona. Iñaki Arriola Ingurumen Sailburuak, ordea, urte horretan "500.000 tona isuri zirela" esan zuen otsailaren 18an, EH Bilduk eskatuta Diputazio Iraunkorrean egin behar izan zuen agerraldian. Dokumentu ofizialean dagoena edo Arriolak esan zuena, zein da 2018an Zaldibarren isuritako hondakin kopuruen datu zuzena?

AMIANTOA
2013AN BAIMENDUA, 2012TIK ISURIA?

Iñaki Arriola Ingurumen sailburuak datu hauek plazaratu zituen Diputazio Iraunkorrean, otsailaren 18an: "Fibrozementudun eraikuntzako hondakinen sarrera, hau da, amiantoa dutenena, etengabe hazi da Zaldibarko zabortegian: 337 tona isuri ziren 2012an eta 4.253 tona isuri ziren 2019an. Guztira 16.148 tona, zabortegiko hondakin guztien %57".

Baina 2007ko Ingurumen Baimen Bateratuak (IBB) ez zuen amiantoa isurtzeko baimenik ematen. "Isolatzeko materialak" isurtzeko baimena ematen zuen (Hondakinen Europako Zerrendan 17 06 04 zenbakia duena), baina "amiantoa duten eraikuntzako materialak" (HEZ 17 06 05 zenbakia duena) 2013ko IBBn agertzen da baimenduta lehen aldiz, eta arriskutsuak izan daitezkeenez, arriskua neurtzeko karakterizazio berezia egitea eta Ingurumen Sailaren berariazko baimena behar dute, zabortegian isuri aurretik.

Beraz, Arriolak aipatutakoaren arabera, 2012an isuritako amiantodun 337 tona fibrozementuzko hondakin horiek, baimenez kanpo isuri zirela pentsa daiteke. Edo bestela, 2007ko eta 2013ko IBBen artean amiantoarentzat beste baimen bat eman zela, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publiko egin ez zena, eta Zaldibarko Udalean ere jasota ez dagoena.

Gardentasun ikuspegitik argitu beharreko kontua da, 2012an isuritako tona amianto horiengatik (itxuraz baimenik gabe) Verter Recycling enpresak ez baitzuen inolako zigorrik jaso.

JAURLARITZAK BAZEKIEN...

Iñaki Arriola Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak datu hauek eman zituen Diputazio Iraunkorrean: Zaldibarko zabortegian guztira 2,8 milioi tona zabor isuri zirela eta horiek 1,7 milioi metro kubikoko eremua estali zutela.

Betetzeko erritmoa biderkatu egin zuen enpresak: 2012an 185.000 tona isuri zituen, 2017an 380.000 tona inguru eta 2018an eta 2019an 500.000 tonatik gora.

2013ko Ingurumen Baimen Bateratuaren arabera, zabortegiak 2,7 milioi metro kubiko betetzeko eta 35 urtez ustiatzeko baimena zuen. Baina Verterrek eramandako erritmoaren ondorioz, 2022rako erabat beteko zela esan zuen Arriolak.

Jaurlaritzako arduradunek ezin esango dute, ordea, kudeaketa modu honek ustekabean harrapatu dituenik. Izan ere, IBBren arabera, urtero "Ingurumena Zaintzeko Programa" bidali behar dio Verter enpresak Ingurumen Sailburuordeari. Txosten horretan, azken urteko hainbat datu bildu behar ditu enpresak, esaterako datu meteorologikoei buruzkoak, isuritako urenak, atmosferara isuritako emisioenak... eta baita beste hauek ere, zabortegiaren betetze mailari buruzkoak: "Plano topografiko eguneratua egin beharko da, zabortegiaren mugak, zigilatutako zabortegiaren eremua eta azken urteko hondakinak bildu diren zabortegi-eremua zehaztuz". Aurrerago dio hurrengo urteko aurreikuspenak ere jaso behar dituela txostenak: "Hurrengo urtean hondakinek hartuko dituzten eremuen aurreikuspena jasoko da, gutxi gorabeherako kotak adieraziz".

Verterrek Ingurumena Zaintzeko Programa urtero datu guztiekin bidali badu, Jaurlaritza zabortegiaren martxaren jakinaren gainean zegoen.

Gauza bera isuritako hondakin motekin ere: 2013ko IBBk eskatzen zuen bezala, zabortegiak bidali al zion Jaurlaritzari balorizatu beharreko metaldun hondakinen erregistroa sei hilero? eta Ingurumen Sailaren baimen berezia behar zuten 126 hondakin mota horien kasuan, jaso al zuen jakinarazpena Jaurlaritzak, zabortegiak hondakin hauetako bakoitza onartu aurretik? Zabortegiak IBBk eskatutako informazio hau guztia helarazi bazion Jaurlaritzari, ez ote zuen honek nahikoa zantzurik igartzeko Zaldibarko zabortegiak ez zituela hondakinak egoki sailkatzen?

Horrez gain, larria da ikustea Jaurlaritzako datuen arabera, isuritako 335.000 tona hondakin hauetatik 154.000 tonatik gora Zaldibarko zabortegian bertan berreskuratu beharrekoak zirela. Egin al zitzaien zegokien sailkatze eta bereizketa prozesua, edo dena zabortegiko zulora isuri ote zuten?

Are larriagoa da beste hau: Jaurlaritzaren datuen araber, isuritako 64.596 tona ez ziren zabortegi horretan egon behar. Horietatik 23.300 tona inguru EAEko beste azpiegituraren batean berreskuratu zitezkeelako; eta horietatik beste 38.000 tona, hondakin baimenduetakoen zerrendan ez agertzeaz gain, arriskutsuak izan zitezkeelako, hau da, ispilu sarrerakoak dira, karakterizazio berezia behar da arriskutsuak diren edo ez ebazteko. Arriskutsuak izan daitezkeen hauen artean gehienak hormigoia, teila, adreilu eta zeramiken nahasketa ziren.

Jaurlaritzaren datuen arabera, 2.600 tona amiantodun eraikuntza material isuri zituzten. Eta kopuru "txikia" izanagatik ere (935 tona), datu ofizial hauetan ageri da hiri hondakinak ere isuri zituztela urte horretan, zabortegiak horretarako baimenik ez zuen arren.

BALORIZATU BEHAR ZITUZTEN HONDAKINEKIN TRANPA

Metalak eta konposatu metalikoak zabortegian bertan balorizatzeko, aparteko eremu lau batean egin behar zen hondakin horien balorizazioa, horretara bideratutako 1.500 metro koadrotan. Arriskutsuak ez ziren hondakinak soilik kudeatu zitzakeen: zehaztutako 26 hondakin mota, guztira. Baldintza hauek ezarri zizkion 2013ko IBBk Verter Recyclingi.

Balorizazio prozesuan urrats hauek denak eman behar zituen: pisatu, deskargatu, zabaldu, imanaz bereizi hondakinak, balorizatutako zatiak edukiontzietan jaso. Hauek metalak birziklatzeko baimendutako beste kudeatzaile batzuen eskuetara eraman behar zituen Verterrek, adibidez, txatarreroei salduz. Eta balorizatu ezin zen zatia berriz (errefusa), Zaldibarko zabortegira bertara bota zezakeen. IBBren arabera, Verterrek erregistro batean zehaztuta eraman behar zuen zein enpresari hartu zizkion hondakin metaldunak, eta horietatik zenbat metal balorizatu ahal izan zuen, zein motatakoa zehazki, eta zeinen eskutan utzi zuen. Erregistro honen kopia sei hilean behin bidali behar zuen Iñaki Arriolaren Ingurumen Sailera. Ikusi berri dugunez, 2018an zabortegian isuritako 335.000 tonatik ia erdia, 154.000 tona inguru, ziren bertan balorizatu beharrekoak.

El Diario Vasco egunkariak otsailaren 19an argitaratutakoaren arabera, ordea, ez dirudi tona horiek guztiak txukun berreskuratuko zituztenik. Zabortegiko langileek ertzaintzari aitortu diote birziklapenean tranpa egiten zutela, Jaurlaritzak aurrez abisatzen zienez ikuskaritza noiz joango zen: Ingurumen Sailaren ikuskaritzak Verterren zabortegia bisitatu baino lehenago txatarra erosten zuten, balorizatzen zutenaren itxura egiteko. Urtean zehar iristen ziren metaldun hondakinak sailkatu gabe gainerako hondakinekin batera botatzen zituzten zulora.

ORGANIKORIK DEN ARTEAN, SU ARRISKUA EGONGO DA

Zaldibarko zabortegiak su hartzeko metanoa behar izan du, eta metanoa hondakin organikoetatik dator. Baina nola da hau posible, zabortegi hau "karga organikorik gabea" izendatu badu Jaurlaritzak? Badirelako hondakin mota batzuk IBBk onartu dituenak eta materia organikoa dutenak: papera, paper pasta eta kartoia egitean edo eraldatzean sortutako hondakin mota batzuk, hain justu. 2007ko IBBk era horretako bi hondakin mota onartzen zituen, eta 2013ko IBBk lau hondakin mota, hauek guztiak Ingurumen Sailari jakinarazi eta berak baimen berezia eman beharrekoak. 2018ko datuen arabera, 83.000 tona dira urte horretan paper loihetan eta paper pastetan isuritakoak. Zabortegia ireki zutenetik bota izandako materia organiko guztiak du sua pizteko arriskua, horregatik da garrantzitsua hondakin organikoak besteenganik bereizi eta konpostatzea. Zabortegietan hondakin organikoak

ez du oxigenorik arnasten, eta prozesu anaerobikoaren bidez metanoa sortzen du. Hau oso da arriskutsua, metano poltsek eztanda egin baitezakete.

2013ko IBBk dio Verterrek hondakin organikoak hartzen baditu, gasak biltzeko tximiniak jarri beharko dituela eta jasotako metanoa ahal bada aprobetxamendu planta batera bideratuko dela, eta ezin bada, antortxan erre beharko duela. Izan ere, erre gabe isuritako metanoak berotegi efektua eragiten du. Zabortegiak tximiniak osorik zituen garaian ere metano guztia bildu eta kanporatzeko arazoak baldin bazituen zabortegiak (hori adierazi dute ikuskaritza aktek), erori ostean eta egitura guztia desegin denean, orain ezinezko da materia organikoak sortzen duen metanoa egoki bildu eta kanporatzea. Epe ertain-luzerako beraz, sute arriskua nabarmena da Eitzaga auzoko zabortegian.

AZKEN IKUSKARITZAK DETEKTATU ZITUEN HUTSEGITEAK, BAINA ZIGORTU EZ

Eusko Jaurlaritzak 2018ko isuriei buruz zituen datu hauek ez ote dira oso argiak ondorioztatzeko Zaldibarko zabortegia ez zela hondakinak ongi sailkatzen eta kudeatzen ari?

Horrez gain, 2019ko ekainaren 10ean eta uztailaren 10ean ikuskaritza bisita programatuak egin zizkion Ingurumen Sailak Verterren Zaldibarko zabortegiari. Hitzordua jarrita egin zen bisita hura beraz, ez sorpresan harrapatuta. Hala ere, ikuskariaren aktan 23 okerdura aipatzen dira, baina horietako bat ere ez zuten "larritzat" kalifikatu. Okerdura horien artean aipatzen dira artikulu honetan zehar azaldu ditugun arau-hausteetako gehienak: adibidez, "Ez ditu zabortegian sortutako gasak jasotzen eta/edo tratatzen"; "Hondakin batzuk eliminatu izana, justifikatu gabe balorizatzeko modurik ez zegoela"; "Ez du karakterizaziorik egiten ispilu-sarrera duten hondakinen arriskuari buruz" (arau-hauste hau da bakarra, ikuskaritzak larritasun "ertain" modura kalifikatu zuena); "Balorizatu daitezkeen hondakin hauek sailkatzeko baldintzak ez ditu betetzen: papera, kartoia, egurra, plastikoak, ontziak"; edo "IBBn agertzen ez diren hondakin arriskutsuak edukitzea". Arriolak zabor-jauziari buruzko azalpenak eman behar izan zituenean Diputazio Iraunkorrean, adierazi zuen juxtu ezbeharra gertatu zenean ari zirela espediente zigortzaile bat abiarazteko txostena prestatzen. Askok ez dio sinetsi.

2011n martxan jarri zutenetik, Verterren zabortegiak zigor bakarra jaso du. "Larri" gisa kalifikatu zuten eta 2012an izan zen. PCBz (bifenilo polikloratuak) kutsatutako lurrak bolada batean bertan gorde zituzten, nahiz eta 2007ko IBBk ez horretarako baimenik eman. 33.000 euroko zigorra ezarri zion Jaurlaritzak, eta berreskurapeneko neurriak hartzera behartu zuten.

Verter ez da zabortegirik zigortuena EAEn. 2008tik 13 zigor ezarri dizkie Ingurumen Sailak zabortegiei, denak "larri" kalifikatuak. Hamahiru zigor horietan, guztira 707.001 euroko kopurua ordaindu dute: zigor arinena 27.000 eurokoa izan da eta larriena 120.000 eurokoa. Verterrek jasotako zigor ekonomiko bakarra arinenetakoa da, beraz. Bitartean, *Berria* egunkariak argitaratutako informazioaren arabera, 2017 arte Verterrek 8,57 milioi euroko irabazi garbiak lortu zituen.

Jaurlaritzak datu hauek guztiak baldin bazituen (ikus "Jaurlaritzak jakin behar zuen..." koadroa), eta ikuskaritzak berresten bazizkon esku artean zituen informazioak, duda geratzen zaio irakurleari kontrol falta den Zaldibarko zabortegian administrazio publikoak izan duena, edo ez ote den gehiago, ezaguera zuen errealitatearen aurrean bestaldera begiratzea, Jaurlaritzak egin duena. ●

Zaldibarko dioxinak aztertu dituen Madrilgo laborategia ez dago Europa mailan horretarako akreditatuta

Madrilgo CSIC laborategira bidali ditu Eusko Jaurlaritzak Verter Recyclingen zabortegi inguruetan hartutako aire mostrak, dioxina, furano eta PCB kopurua neurtzeko. Baina Espainiako Estatuan, bi laborategi baino ez dira airean dauden dioxinak neurtzeko Entidad Nacional de Acreditación (ENAC) erakundearen autorizazioa dutenak, eta biak daude Bartzelonan: IDAEA-CSIC laborategia eta Institut Químic de Sarrià. Jaurlaritzak zergatik ez ditu bidali laginak Europa mailan berme gehien ematen duten laborategi hauetara?

Irudian, Bartzelonako IDAEA-CSIC laborategiak dioxinen gaian duen ENACen akreditazioa. Madrilgo CSICen laborategiak ez du Europa mailan bermea ematen duen autorizazio hau, eta bertan egin dituzte Zaldibarko aire laginen dioxina neurketak. Zergatik?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

ENACek horrela azaltzen du bere webgunean, zergatik egin behar diren frogak eta kalibrazioa akreditatutako laborategietan: "Gaitasun teknikoen berme handienak jaso nahi badira arriskurik hartu gabe, akreditatutako laborategiak hartu behar dira, horiek frogatu dutelako badutela beharrezkoa den gaitasun teknikoa. Aldiz, akreditaziorik ez duten laborategien kasuan, laborategiak esaten duenak pertsonari sortu ahal dion konfiantza soilik dago oinarrian".

Madrilgo CSIC laborategi horretan diharduen Begoña Jimenez Luque ekarri du Jaurlaritzak Zaldibarko zabortegi inguruan jasotako dioxina analisien emaitzak azaltzeko. *El Mundo* egunkariak otsailaren 19an galdetu dio ea zergatik eraman dituzten analisiak Madrilgo CSIC laborategira, analisi horiek egiteko akreditatuta dagoena Bartzelonakoa baldin bada. Bere erantzuna: "Guk ere gaitasun bera dugu analitika horiek egiteko". Bere adierazpenek hori diote, frogatzeko ENACen ziurtagiririk ez du Madrilgo laborategiak, ordea. Jimenezek berak otsailaren 18an prentsaren aurrean egindako agerraldian azaldu zuen froga hauek egitea oso dela konplexua: "Analisiak egiteko teknikak oso konplexuak dira eta instrumentazio oso sofistikatua eskatzen dute: espektrometria erresoluziorik handiena duena".

Ikusirik analisi horiek egiteko hain konplexuak direla, eta jakinik Zaldibarko zabor-jauziak eta ondorengo suteak herritarrengan sekulako konfiantza falta piztu duela kutsadura eta osasun kontrol sistemekiko, zergatik ez ditu Jaurlaritzak analisiak Europako Batasunean sinesgarritasuna duten laborategi akreditatu batera eraman? Zer nolako emaitzak emango zituzkeen horretarako autorizatutako laborategi batek egin izan balitu dioxina eta furano azterketak?

ZER DA AKREDITAZIO HORI?

Nazioartean, laborategi klinikoen gaitasun teknikoaz konfidantza sortzeko erreminta bat da aipagai dugun akreditazioa (UNE-EN ISO 15189 nazioarteko araudia jarraitzen du). Akreditazioak adierazten du, berau jaso duten laborategiak egoki burutzen dituela Konformitatearen Ebaluaziorako Jarduera deitzen zaien horiek: entseguak, kalibrazioa, ikuskaritza, zertifikazioa, egiaztapena eta abar.

Akreditazio hau Europar Batasuneko 765/2008 erregelamenduak arautzen du eta estatu bakoitzean erakunde bakarrak du berau emateko baimena. Espainiako estatuan ENAC da. ●

Martxoak 8

GREBA DEITU ZEIN EZ, BORROKARAKO EGUNA

Azken urteetan mobilizaziorako gaitasunean nabarmendu den mugimendurik bada, feminista da horietako bat. Bi urtez segidan, greba tresnatzat, martxoaren 8 arrakastatsuak burutu ditu; kapitalaren logikari bizitzarena gainjartzea exijitzeko, milaka emakumek lan orori –izan soldatapekoak zein doakoak– planto egin eta kaleak hartu izan dituzte. Are gehiago, grebaren kontzeptua birdefinitzea lortu dute, gehienbat emakumeek egin ohi dituzten doako lanak barne biltzen dituen eredua asmatzeraino. Alabaina, greba tresna arrakastatsua izanagatik ere, aurten ez erabiltzea erabaki du mugimenduak. Hautu horretaz eta Emakume Langilearen Nazioarteko Egunerako dituzten asmoez mintzatu gara mugimendu feministako bi kiderekin.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

EKINKLIK

MARTXOAREN 8KO GREBA, IRUÑEAN.

Azaroan egin ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan entzun genion hizlarietako bati ez zutela bideragarri ikusten 2020ko martxoaren 8an berriz greba egitea. Amaia Zufiaren ahotik aditu genituen adierazpenak, Bilgune Feministak zeukan posturaren berri emanez. Talde konkretu baten iritzia izatetik urruti, badirudi orokortua zela martxoaren 8an greba ez egitearen aldeko hautua.

Bat baino gehiago dira postura horren alde egiteko arrazoiak Naia Torrealdai Bilgune Feministako kidearen arabera; azken bi urteetan greba antolatzeak eragindako nekea da aurrena aipatu duen faktorea. "Martxoaren 8ko koordinazio lanetan ibili garen jendeak eta taldeek ez genuen beste urtebetez grebara deitzea ikusten", dio. Bere iritziz, Zufiak jardunaldietan greba ez deitzea proposatzearekin batera luzatutako arrazoien artetik, publikoak nekearekin bat egin zuen gehienbat, pausaldirako beharrizana dagoen seinale. Azaldu duenez, erabaki da "neke hori erdigunean jartzea eta politizatzea". Martxoaren 8ko planteamendua aldatu arren, bizitza erdigunean jartzearen aferak mugimendu feministaren lehen lerroan jarraitzen duen seinale.

Azken bi urteetako grebek eragindako nekea areagotu dute Jardunaldi Feministek eta urtarrilaren 30eko greba orokorrak. Azken honi dagokionez, mugimendu feministak argi ikusi zuen greba horretan indarrak jarri behar zituela. "Azken finean bi greba feminista egitetik gatoz, eta horietan *leitmotiv*ak izan dira borrokaren artikulazioa, eragile sozialen artean alternatibak eraikitzea... eta urtarrilaren 30eko grebak hori guztia planteatzen zuen, guretzako garrantzitsua zen indarrak hor jartzea", azaldu du Torrealdaik. Hori horrela, han eta hemengo feministak greba orokorra antolatzeko komiteetan aritu dira lanean, eta greba ostera arte ez dira jarri martxoaren 8ari begira. Nekeaz gain, antolakuntzarako denbora epea ere urria izanik, greba egiteko baldintzak ez direla eman deritzo Torrealdaik, "ez behintzat greba feminista bat, zaintza greba ere barne biltzen duena".

Hirugarren urtez jarraian greba ez deitzearen beste arrazoietako bat diskurtsoari loturikoa dela azaldu du Torrealdaik. Aurreko urteetan mugimenduak argi zeukan emakumeak grebara zergatik zihoazen adierazten zuen diskurtso bat garatu beharra zegoela, baina behin arrazoibideak osatuta eta gehitzekorik gabe, errepikakorra litzatekeela deritzo. "Uste dut diskurtsiboki ez ginela zeozer berria esatera heltzen, eta horregatik hartu dugu hartu dugun erabakia".

Torrealdairen iritziz grebaren inguruan eztabaida egiteke geratu da, hausnartzeko greba tresna moduan agortzeko edo folklorizatzeko arriskurik baden. Egiteko horrek itxaron beharko du ordea, martxoaren 8a gainean baita, eta greba deitu ez izanak ez baitu esan nahi egun horretan deus antolatuko ez denik. Hamaika dira kalera atera eta borrokari eusteko motiboak.

AURTEN ZER?

Torrealdairen ustetan, Euskal Herriko Mugimendu Feministaren hautua albo batera, aurten ere egon badago sobera arrazoi berriz grebara joateko. Alabaina, "greban egongo diren emakumeekiko elkartasun osoa" adieraziz, bestelako moldez antolatu dute gainean den martxoaren 8a.

Aurtengo planteamenduak dituen helburuetan sakondu aurretik, iazko grebaren ostean egindako diagnostikoaz mintzo da. Diagnostiko haren bidez ohartu ziren jendea kalera ateratzea lortu zutela, baina jakinik jendetza mobilizatzeak ez duela ziurtatzen jende guzti horrek mahai gaineratutako diskurtso ideologikoarekin bat egin izana. "Kalea hartzea oso garrantzitsua da, baina ideologizazio prozesua ere eraman behar dugu aurrera; hala bada, argi ikusten genuen aurtengo helburuetako bat izan behar zela argi uztea feminismoa dela erradikala, antikapitalista, antiarrazista", dio Torrealdaik. Indarrak horretan jartzeak lagunduko luke jende baten politizazioa bultzatzen, eta era berean, diskurtso feministarekin edozein eroso sentitzea eragozten. Eta azken aspektu horrek, hein handi batean, garbiketa more saiakerak murriztea eragingo luke.

Azken bi urteetako greba deialdietan izandako masa gorakadaren ildotik, beste aspektu baten gainean ere hausnartu

MOBILI-ZAZIOAK

Euskal Herriko hiriburu guztietan, baita auzo zein herrietan, mobilizazioak deitu dituzte martxoaren 8an. Hemen deialdien zerrenda:

Nafarroa

Goizez mobilizazio deszentralizatuak egingo dira herri eta auzoetan, 12:00etan. Iruñean, alde zaharretik abiatuko da mobilizazioa, eta Gazteluko plaza izango da bilgune.

Arratsaldez, eskualdeka egingo dira mobilizazio nagusiak, 18:00etan. Iruñekoa Antoniutti parketik abiatuko da.

Gipuzkoa

Goizez mobilizazio deszentralizatuak egingo dira herri eta auzoetan, 12:00etan.

Arratsaldez, eskualdeka egingo dira mobilizazio zentralizatuak, 18:00etan.

Lapurdi

11:00etan Baionako Pausa aurretik (18 Lesseps kaia) abiatuko da mobilizazioa.

Bizkaia

Bilboko Jesusen Bihotzetik abiatuko da mobilizazioa, 13:00etan.

Araba

Arratsaldeko 17:30ean, Gasteizko San Anton Plazatik abiatuko da mobilizazioa.

*Ziurrenik zerrenda honetatik kanpo geratu diren mobilizazioak deituko dituzte han eta hemengo herrietan. Informazio gehiagorako, adi herri eta auzoetako talde feministek diotenari.

du mugimenduak: feminismoak jende andana erakarri arren, badirudi feminismo indibidualista bat hedatu dela. Horren aurrean kolektiboki antolatuta jardutearen garrantzia azpimarratu nahi du mugimenduak aurten, erdigunean jarriz mugimendu feministaren atzean badirela hainbat kolektibo lanean. Martxoaren 8ko mobilizazioetara deituz Iruñean egindako prentsaurrekoan argi utzi zuten: "Neoliberalismoak hain eragin handia duen mundu honetan, indibidualismo basati eta atomizatua sustatzen duen mundu honetan, komunitate feminista konprometitua eraiki behar dugu, sare sozialek eragiten duten pasibotasuna gainditzuz". Itzulingururik barik dio Torrealdaik: "Aurtengoa antolakuntzara dei egiteko eguna izango da".

Ideologizazioa bultzatzearekin eta antolakuntzara dei egitearekin batera, beste oinarrizko helburu bat ere badu aurtengo planteamenduak: martxoaren 8a borroka eguna dela gogoraraztea. Borrokaldirako prestutasuna darie Iruñeko prentsaurrekoan egindako adierazpenei: "Gure feminismoak hainbeste ahaleginekin lortutako eskubide sozial zein politikoetan emandako atzerapausoari egin behar dio aurre. Baina, gaur ozen eta garbi diogu, aurrean gaituzue! (...) Gaur eta beti, eskuin mutur zaharkitu, misogino eta homofoboari aurre egiten dion feminismo antifaxista defendatzen jarraituko dugu. Berriz ere errepikatuko dugu, aurrean izango gaituzte, ez dira pasako!".

IPAR EUSKAL HERRIKO FEMINISTAK, SAREGINTZARI EMANAK

Ildo bertsuei tiraka ari dira antolatzen martxoaren 8a Ipar Euskal Herrian, baina beren lurraldean zentraturik, Lur Renteriak kontatu digunez. Kontaktuan dira Hego Euskal Herriko mugimenduarekin, Paris inguruetan mugimendu feministak dituen asmoen berri ere badute, baina lokalki jarduteko beharra sumaturik, premia horri erantzuten dihardute. "Lehenik hemengo errealitatera egokitu behar dugu borroka feminista, gure artean eztabaidatu, eta ostean ikusiko dugu zein elkarlan ematen dugun", dio Renteriak.

Hilabete pasa daramate martxoaren 8a aurrera eramateko bilkurak egiten, nahiz eta asmoak borroka egun konkretua antolatzetik harago doazen. Renteriak dioskunez, Ipar Euskal Herriko mugimendu feminista indartu nahi dute, beren artean saretu, luzera begira jartzeko helburuarekin. Orain gutxi azaleratu diren Donibane Garaziko lizeoko bortxaketa kasuek, jendearen barruak astindu eta antolatzeko premia hauspotu dutela iruditzen zaio. "Jende guztiz ezberdina elkartzen gara, baina oraindik ez dakigu sobera nondik joko duen planteamenduak", dio. Zalantzak zalantza, bidea egiteari ekin diote.

Martxoaren 8ari dagokionez, hiru helburu zehaztu dituzte, Hego Euskal Herrian mahai-gaineratutakoen nahiko parekoak: eguna bera borroka egun gisa planteatzea, ez festa egun modura; talde zein norbanakoak saretzea, "indarrak metatzeko eta gaitasunak handitzeko" lanketa komun bat gauzatuz elkarrekin; eta matxismoa zapalkuntza estruktural gisa ulerturik, "sistemari berari kritika egitea".

Martxoaren 7an, larunbata, herrietan zer edo zer antolatuko dela aurreratu du Renteriak. Biharamunean, Baionan egingo da martxoaren 8ko egitaraua. Manifestazioa deituko dute, baita asanblada nagusia ere. Asanblada horrek askotariko helburuak izango ditu: saretzea eta elkar ezagutzea batetik, eta borrokak segi dezan oinarriak jartzea bestetik. "Indar erakustaldi handia egiten da martxoaren 8an, baina horretan geratzen da. Aurtengo planteamenduak bilatzen du segida ematea borrokari", dio. ●

LANDAREAK ERAILTZEA

Mammoth sekuoia, 1.244 urterekin eraila.

Zalantza bat dut: zuhaitz edo arbola bati edo edozein landareri bizia kentzen diogunean nola esan beharko genuke? Hil, erail, garbitu, akabatu, amaitu, asasinatu, bukatu, heriotza eman, heriotzaz hil, eho, kalitu, erasan, tragatu, ero…

Esanahi aproposa duen hitz egokia aukeratzeko, landarea erailtzen dugunean egiten dugun horrek guretzako zein neurriko ekintza den adostu eta erabaki behar dugu. Landarearentzako zer neurriko ekintza den ez dugu zalantzarik izango, ezta? Bereak egin du. Berearena egin diogu, esan beharko genuke. Esateko era apalena hori litzateke, halabeharrezko amaiera balitz bezala.

Landarearen amaierarekin min hartzen duenak suntsitu egin dugula esango du. Bost axola dionari, landarea ezereztu egin dela iruditu ko zaio. Landarea bere hankapeko "zer edo zer" dela uste duenak ondotik kendu duela esango du. Landareei beldurra dienak, zuhaitz guztiak gainera datozkiola pentsatzen duenak, bere otoiek erantzun zuzena izan duten uste osoan, libratu dela esango du, hasperen batean. Alferrikako otoi eta hasperen zale ez den moldeko beldurtiak begi-bistatik galdu duela dio.

Belarra eta landare ttikia moztu egiten ditugu. Landarea kendu eta bazterra garbitu duela benetan uste eta esaten duenik ere bada. Handixeagoa den zuhaixka edo zuhaitz ttikia eraitsi egingo dugu, edo harri bat bezala bota, lurrera bota.

Arerioarekin borrokan ari dela pentsatzen duen pertsona ez den lagun horrek lurreratu egin duela esango du. Borrokan ere melenga batean aritzen denik ere bada, hark zuhaitza erorarazi egin duela adieraziko du, jo eta bota beharrean berez erori balitz bezala.

Landuchiuszale denak "iramon" esango du, hala jasoa du XVI. mendeko bere hiztegi sonatuan.

Zuhaitza edo arbola etxekoa bada, erlea edo astoa bezala, galdu egin dela esan behar omen da. Suge, zomorro, lepazuri, zapo, lagun gaizto eta horrelakoen pareko badugu akabatu egiten dugu. Aziendaren eta pertsonen kideko badugu erail egingo dugu.

Dagoeneko argi dut: zuhaitza hil, erail ala akabatu egiten dugu. ●

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLEAK GALDEZKA

Baratzeko plangintza egiterakoan duda batzuk ditut. Txandakatzeak familiaka egin nahi baditut, udan solanazeo guztiak sail batean jarri beharko nituzke... beraz tomateak piperren ondoan, adibidez. Zure liburuan ordea, familia bereko bi landare ondoan ez jartzeko irakurri dut. Pixka bat nahastuta nago orain...

Sara

Txandakatzea ez da familiaka egin behar. Bi gauza izan behar dituzu kontutan: familia bateko bat ez da jarri behar familia bereko beste baten ondoren eta elkarren aldamenean ez jarri, ahal bada. Garrantzitsuena lehena da. Bigarrena ahal baduzu.

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

MOREDAKO OLIO-ERROTA

ARABAKO ERRIOXAKO OLIOAREN EGUNA AURTEN ERROTA KOOPERATIBO HONETAN EGINGO DA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Ardo ekoizpenaz gain askoz ere kantitate txikiagoan ekoizten den beste altxor bat ere badute Arabako Errioxan: olioa. Azken urteetan olibondoak galtzen joan badira ere, olioaren kulturak bizirik dirau. Moredako La Equidad olio-errota kooperatiboa da horren adibide: "1947an sortu zen olio-errota hau. Lehenago herrian baziren lau bat partikular, baina urte hartan herritarrak herriarentzako olio-errota sortzeko batu ziren", azaldu dizkigu hastapenak Jesus Eraso Diaz de Cerio kooperatibako lehendakariak.



ANTZINAKOA BERRIAREN ONDOAN

1947an eraikitako olio-errota hark 2001 arte funtzionatu zuen: antzinako moduan ekoizten zuen, harrizko errota bidez eta lehengo irabiagailu eta prentsatze sistema zaharrekin. Baina errota zaharkitua gelditzen ari zenez eta osasun neurrien aldetik bete beharreko baldintzak zirela medio, berria jartzea erabaki zuten 2001ean. "Apustu handia egin genuen, inbertsio dezentea ekarri baitzuen aldaketak", dio Erasok. Errota berriarekin zentrifugazio bidez ehotzen dute oliba.

Berria jarrita ere, antzinako errota mantentzea erabaki zuten kooperatibako kideek. Moredara hurbiltzen diren bisitariek, modu horretan, bi errotak ikusteko aukera dute.

Arroniz barietateko 200.000 oliba kilo inguru ekoizten dituzte kooperatibako kideek urtean, eta ehun kilotik 18-20 litro olio ateratzen dute. Eusko Label edota laborantza ekologikoko zigilupean ekoizten dute saltzeko egiten dutena, baina gehiena etxeko kontsumorako egiten dute. Kooperatibako kideen artean Moredako herritarrak ez ezik inguruko herrietakoak ere badaude: Viana, Oion, Lantziego, Laguardia, Binasperi, Bilar, Gorrebusto, eta Labrazakoak.

OLIOAREN KULTURA BIZIRIK

Bisita gidatuak eta olio dastaketak askotan antolatzen dituzte Moredako olio-errotan, eta doakoak izaten dira gainera. Nahikoa da deitu eta kooperatibako kideekin eguna eta ordua hitzartzea. "Asteburu honetan bertan Gasteizko 15 lagun izan ditugu bisitan, eta ikasle taldeak ere etortzen dira noizean behin". Arabako Errioxan ardoaz gain gauza gehiago ere badirela erakustea dute helburu, baita euren olioa promozionatu eta ezagutaraztea.

Eta olioaren kultura zabaltzeko bestelako ekimenak ere antolatzen dituzte. Esaterako, urtero ospatzen dute Arabako Errioxako Olioaren Eguna, aurten martxoaren 22an Moredan bertan eginen dutena. ●

AGENDA

LIBURU AURKEZPENA

BERDEA DA MORE BERRIA

Liburuaren egile Onintza Irureta eta Gipuzkoako zaharren egoitzetako grebalari bat arituko dira mahai-inguruan.

Otsailak 28 18:00etan
Mundaka Udal liburutegian

Martxoak 14 17:00etan
Altzo Batzarremuñon

ARGIA-koa egin direnean eman duten arrazoia

"Oso tresna baliagarria baita. Munduari buruz ez ezik gure ohiturei buruz ere, albisteak irakurtzeak nahiz entzuteak asko irakasten dit".

Sonia Gabancho, Bilbo

"Argia babesten badugu, euskara babestu egiten dugulako"

Roberto Alberdi, Donostia

argia.eus/eginargiakoa

OBITUARIOA

Agur bat

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Nik gehiago lotu izan zaitut beti Hernaniko Langile Ikastolako ikasle batzuen guraso izatearekin. Lotzen zaitut, noski, herri mugimenduen bueltan, baina ez elkarrekin lan egitea suertatu izan zaigulako, akaso, adinez urrun; lotzen zaitut, batean eta bestean ikusi zaitudalako, ibili zarelako. Baina, sarri, sarriegi egiten dugun bezala, joan zarenean hasi naiz gehiago zure ibilbideaz galdezka, eta ARGIAk ere izan du bide horretan bere parte txikia.

Azken denboretan, kontatu didate, harremanetan egon zarete hezkuntzan pil-pilean dauden gaiak zein izan daitezkeen pista batzuk emateko. Zuek, *Hik Hasi*koek ARGIAkoei, alegia. Klabe batzuk eman. Kontaktu batzuk pasa. Erreportaje edo elkarrizketa posible batzuetarako ideiak bota. Urtean behingo kafe horrek asko balio izan die etxe honetako kazetariei hezkuntzaren gaiak sakontasunez jarraitu ahal izateko.

LOTZEN GAITUZTEN HARIAK

Euskarazko bi hedabideren arteko harremana mantentzeko ere balio izan dute bilera horiek. Baina ARGIAk eta *Hik Hasi*k duten lotura ez da berria.

Auzmendi Legazpiko Haztegi Ikastolan irakasle zela sortu zituzten *Ene Bada* aldizkaria eta Hoska irratia, azken hori ikasleekin. Orduan ARGIAko zuzendari zen Pello Zubiria gonbidatu zuten ikastolara, euskarazko hedabideez azalpenak ematera. Hor egingo zuten lehen harremana Auzmendik eta ARGIAk.

1990eko hamarkadaren hasierara jotzen badugu, ikus ditzakegu Ametzagaiña taldeko lagunak, gazte, indartsu, orduantxe Lasarte-Oriako pabilioietan sartuta, *Euskaldunon Egunkaria* sortu berri zutela, mundua jateko prest. Euskalgintza pixkanaka, eta errezelo handiz, pizten ari zen, baina oraindik gaur ezagutzen ditugun kultur parkeak, kontseiluak eta abarrak ez ziren mapa horretan ikusten ahal. Proiektu baten baino gehiagoren sehaska izan zen oraindik tente dirauen Oriako pabilioia.

Joxe Mari Auzmendi, 1999an.

ARGIAKO ARGAZKI ARTXIBOA

Ikastolen mugimendua, publifikazioa, ez publifikazioa... urte horiek bizi izan dituztenek ondo gogoan izango dituzte eztabaida horiek. Eta tarte horretan, beharra ikusi zen hezkuntza arloan nazio ikuspegitik, ezkerretik eta ikuspegi aurrerazaletik aldizkari bat sortzekoa. Hor sartu zinen zu, Joxe Mari, eta sartu zinen gaur egun Antza inprenta dagoen txokoan. Hor egin zituen *Hik Hasi*k bere lehen urteak, akaso urterik konplikatuenetakoak. Hasierak sekula ez baitira errazak. Inprenta konpartitu zenuten ARGIArekin, konpartitzen zenuten eta konpartitzen duzue. Bulegoa beste leku batera mugituta ere, bidea beti laua ez eta zenbait lekutan oztopoz eta malkarrez betea; momentu batean urrundu gaituzten bidegurutzeak egonik ere, jarraitu baitu lotzen gaituen hari bat egoten.

Joxe Mari Auzmendi, euskaltzale nekaezin; deskantsatu, hariak jarraituko du. ●

Bis Sextum, egutegia doitzeko

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Erroma, K.a. 46. Julio Zesarren aginduz, egutegi berria jarri zuten indarrean Erromatar Errepublikan. Berez, juliotar egutegia hurrengo urtean ezarriko zuten eta 46a trantsizio urtea izan zen, aurrez pilatutako desfase guztiak berdintzeko erabili zutena. Hala, urteak 445 egun izan zituen eta "juliotar urtea" edo "urte nahasia" esaten zaio.

Antzina, erromatar egutegiak 10 hilabete zituen, 304 egun. Horrela urte astronomikoarekin bat egiterik ez zegoenez, Plutarkoren arabera, Numa erregea izan zen urte amaieran beste bi hilabete erantsi zituena: urtarrila eta otsaila (orduan urtea martxoan hasten zen, Marte jainkoari eskainitako hilabetean). Urte naturaletik hurbilago baina oraindik urrun, Mercedonius izeneko hilabete komodina asmatu zuten desfaseak saihesteko. Kontua da baliabide hura, arrazoi astronomikoengatik baino gehiago, interes politiko eta ekonomikoetarako erabili zutela gehienbat; agintari bat karguan luzatzeko eta lehenago botatzeko, zergak lehenago kobratzeko... erabaki ohi zuten mercedoniusa sartzea ala ez. Komodinak ez zuen egutegia egokitu, gehiago desitxuratu baizik.

Anabasa hura zuzentzeko, Julio Zesarrek egiptoar astronomo, matematikari eta filosofo Sosigenes Alexandriakoaren egutegia erabili zuen. 365 eguneko urtea ezartzen zuen, ñabardura batekin: bazekiten urteak 365 egun eta ia 6 ordu irauten duela eta, horregatik, lau urtez behin egun bat gehituko zitzaion egutegi berriari. Zehazki, otsailaren 24a errepikatzea erabaki, hau da, martxoko kalenden aurreko seigarren eguna: *ante diem sextum kalendas martias*. Eguna errepikatzen zenez *Bis Sextum* esan zioten eta hortik dator "bisustu" hitza.

SOUSSEKO ARKEOLOGIA MUSEOA

OTSAILARI DAGOKION MOSAIKOA, TUNISIAKO EL DJEM ANFITEATROKO ERROMATAR EGUTEGIAN.

Neurri horri esker, juliotar egutegia luzaroan izan zen erabilgarria Europa osoan. Baina ez betiko. Urteak 365 egun, 5 ordu, 48 minutu eta 45,16 segundo ditu. Eta sei ordutara iristeko falta diren minutu gutxi horiek urtez urte pilatuz joan ziren. 1582rako egutegiak 10 egunetako aurrerapena pilatua zuen gutxi gorabehera. Horregatik, urte hartan, egun soberakin horiek jan eta, Gregorio XIII.a aita santuaren aginduz, gregoriar egutegia ezarri zen. Eta oraindik indarrean dagoen bisurteen araua jaso zuen: urte bat bisurtea da 4rekin zatigarria bada, salbu eta 100ekin zatigarria bada. Hala ere, 400ekin zatigarria denean, urte hori ere bisurtea da. Horrek esan nahi du mende bukaerako urteak –00 bukaera dutenak– ez direla bisurteak, salbu eta 400ekin zatigarriak badira.

Oraindik urteko 26,9 segunduko alde txiki bat dago, baina 3.000 urte inguru beharko dira egun bateko desfasea pilatzeko. ●

MELBOURNEKO UNIBERTSITATEA

Liztor habiak, labar artea datatzeko

1891n nekazari batek Gwion estiloko hainbat labar pintura aurkitu zituen Kimberlyn (Australia). Orain arte ez zegoen jakiterik gizakiak xehetasun handiz irudikatzen dituzten artelan horiek noizkoak ziren, margoetan ez zelako ikatzik edo datatzeko moduko beste substantzia organikorik erabili. Berriak zirela eta aborigenek ez zituztela margotu ere esan izan du zenbaitek.

Baina Wollongong Unibertsitateko Geokronologiako aditu Richard Robertsek pentsatu zuen pinturen hormetako liztor habietan egon zitekeela erantzuna. Berriki, liztor habia fosilizatuetan gordetako ikatz arrastoak datatzea lortu dute eta emaitza harrigarria izan da, margolanak pentsatu baino zaharragoak direlako: 12.000 urte dituzte. ●

EITB KULTURA

Zorioneko salbuespena ETBn

Gutxi dira EiTB Kultura baino bizi luzeagoa duten telebista saioak, baina nekez agertuko da inoiz programa entzutetsuenen zerrendatan. Jarraitzen dutenek ordea, estimu handitan dute. *Rara avis* bat da urgentziak eta audientziek baldintzatutako telebistan. Lau pieza labur egiten dituzte astero, Euskal Herriko artisten lanaren berri emanez; patxadaz eta mimoz, esperimentatzeko beldurrik gabe. Pieza horiek egiten dituen jendea (eta ahalbidetzen dituen giroa) ezagutzeko jo dugu EiTBk Bilbon duen egoitzara.

LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA
DANI BLANCO

Jarri zara inoiz pintxo-potetik bueltan ETB1i begira? Topatu duzu telebistan artista baten –aktorea, musikaria, artista plastikoa, idazlea...– berri ematen duen erreportaje zaindu baina labur bat? Aurkezlerik gabea eta off-ahots limurtzaile batek gidatzen duena? Film dokumental baten tankera duena? Erantzuna baiezkoa bada, halako zerbaitekin topo egin baduzu, zuk ere ikusi duzu EiTB Kultura saioa inoiz. Akaso saioa zenik ez bazenekien ere.

Saioa bada izan, baina ez du beti forma bera hartzen. Atal bakoitzak ordu erdiko iraupena du, eta ostegun gauerditan emititzen da osorik ETB1en –ETB2n ere eskaintzen dute, azpi-tituluekin eta ordubete geroago–. Ez da ordea, saioa telebistan ikus daitekeen egun bakarra. Atal bakoitza lau azpi-atalek osatzen dute, eta banatuta ere emititzen dira. Aktualitatearekin lotura duen erreportajea da bat; kulturgile baten gomendioak biltzen dituen *Zakura* bigarrena; eta *Sortzaileak* izenpean, artista bati egiten dioten erretratu modukoa ere badago. Azkenik, aldiro desberdina den laugarren zati bat ere egiten dute, malguagoa denez, aldiro zerbait desberdina egiteko aukera ematen diena.

GUSTUKO LANEAN...

Aldian aldiko artista da pieza bakoitzaren protagonista. Joseba Sacristanen ahotsaz gain, ez dago aurkezle gisa identifika daitekeen inor. Nor dago, hortaz, EiTB Kulturaren beste aldean? Nork idatzi, zuzendu eta grabatzen ditu eduki horiek? Bada, Bilboko EiTBren egoitzan gotortzen den hamabi laguneko lan-taldeak.

Xabier Larrazabal da zuzendaria. Aurten hartu du ardura hori, Rosa Zufiari erreleboa emanez. Lan-taldea aldiz, bertsua izan da azken lau urteetan, eta elkar ondo ezagutze hori oso lagungarri zaiela dio Larrazabalek. Hiru erredaktore –Ane Lusarreta, Ana Abarisketa eta Laida Zabala– dira edukiaren arduradun nagusiak. Prozesu osoan daude haiek: lehen ideien bileratik hasi eta saioa sarean zabaltzen den arte. Astero saioaren ataletako bana egokitzen zaie –txandakatu egiten dituzte ez errepikakorra izateko– eta haiek joaten dira grabaketara, bi kameralarik lagunduta. Gauza bera egiten dute montajeaz arduratzen diren Hannot Mintegia eta Mikel Yarzak ere: astero bina atalez arduratzen dira, txandaka: "Saio osoaren perspektiba ematen digu horrek, eta lana interesgarriagoa egiten du".

Lan-taldearen ezaugarriez galdetuta, bat azpimarratuko luke Larrazabalek: "Denak gara oso kulturzaleak, gustatzen zaigun gaiez aritzen gara, gozatuz, eta emaitzan igarri egiten da hori". Aniztasuna ere aipatu dute Hannot Mintegia eta Ane Lusarretarekin batera osatu dugun hiruko mahai-bueltan: "Musikariak ditugu gure artean, argazkilari bat, irra-

titik datorren bat, prentsa idatzitik datorren beste bat…". Aipatatutakoez gain, Bilbon aritzen den lan-taldea Maite Romero ekoizpen laguntzaileak eta Jose Mari San Sebastian soinu arduradunak osatzen dute.

BERDE PRODUKZIOAK: ESKUAK ETA BEGIA

Lehen begi-kolpean saioa bereizgarri egiten duena telebistan ez-ohikoa den estetika zaindua da; ez konposizioa edo koloreen hautaketagatik bakarrik, ezpada atal gehienetan somatzen delako irudien bidez kontatzeko ahalegina. Ikusten denak geruza bat gehitzen dio entzuten denari. Saioa ekoizten duen Berde Produkzioak-en eskua da hori. Haienak dira grabaketetan kamerak heltzen dituzten lau eskuak, eta haiena da, baita ere, esanahia izango duten irudi horien bila ari den begia.

EiTB Kulturan bezainbat, Berderen gainontzeko lanetan ere *–Jai Alai Blues*, *Amerikanuak*…– antzematen da joera hori. Hala uste du, bederen, Zigor Etxeberria ekoiztetxeko kideak: "Guk badugu estilo propio bat gure lan guztietara eramaten duguna, eta oso ondo egokitzen zaio hori EiTB Kultura saioari". Estilo horren sekretua ez dago hautatutako kameraren objektiboan edo edizio post-produkzio lanean soilik. Grabaketa antolatzeko modua ei da garrantzitsuena: "Gure kameralariak errealizadoreak ere badira, eta denbora asko eskaintzen diogu bilaketa horri. Gero eta telebista saio gehiago ari dira hori egiten, baina salbuespena gara oraindik". Etxeberriarekin batera, Gorka Bilbao, Jose Luis Barredo eta Markel Suarez aritzen dira kameralari.

> ***"Nahi genuke Euskal Telebistan gauza asko desberdinak izatea, baina guk horretarako egin dezakegun gauzarik eraginkorrena gure lana ondo egiten saiatzea da"***
>
> Ane Lusarreta

DENBORA, LUXUZKO LEHENGAI HORI

Ez da Etxeberria lanari eskaintzen dioten denbora oso garrantzitsua dela dioen bakarra. Gauza bera dakar gogora Ane Lusarreta erredaktoreak. Hiru ordu izaten dituzte, gutxienez, zazpi minutuko pieza izango dena egiteko. Elkarrizketatuak harritu egiten direla dio: "Artista hobeto zaindu eta beste modu batera harremantzeko aukera ematen digu lasaitasun horrek. Eta bide batez, guk ere gusturago egiten dugu lan". Edukiaren hautaketa ere ez dute gehiegizko presaz egiten: normalean egun bat baino gehiago izan ohi dute horretarako. Argigarriak dira Larrazabalen hitzak: "Gurea ez da ohiko telebistaren erritmoa. Alde daukagu, zentzu horretan, *prime-time*-ko saio bat ez izatea".

Gauzak egiteko modu horrek ate berri bat irekitzen dio lan-taldeari: esperimentatzeko aukera. Duten denbora ideia eta formatu berriak esploratzeko baliatzen dute: ildo narratibo klasikoa jarraitzen ez duten erreportajeak, pertsona eta pertsonaia nahasten dituzten elkarrizketak… Saioak berak horretarako aukera eskaintzen duela dio Larrazabalek: "Lau atal ditugu, baina ez dute forma zurrunik. Ezingo genuke dena plantilla berarekin egin; gai eta diziplina bakoitzak ariketa desberdin bat egitea eskatzen digu". Jarrera kontua ere bada, Mintegiaren arabera: "Erredaktoreei zein kameralariei bururatzen zaien edozer probatzeko esaten diegu. Batzuetan hobeto ateratzen da, eta besteetan okerrago, baina gauza bereziak ateratzen direnean horri esker izaten da". Bat dator Lusarreta ere: ez du gogoan sekula ideia bat atzera bota dutenik.

AUDIENTZIAREN KATETIK SALBU

Telebistan, patxadaz lan egitea bezain ez-ohikoa da ikusle-datuen presiorik gabe aritu ahal izatea. EiTB Kulturako kideek ordea, halaxe jarduten dute: "Guk ez ditugu gure zenbakiak begiratzen, eta zorionez, beste inork ere ez die begiratzen gure saioaren datuei", esan du Lusarretak. Zerbitzu publikotzat dute egiten duten lana, eta zerbitzu hori ahal bezain ondo ematea ei da haien presio bakarra.

Audiometroen datuak ahaztuta, beste batzuk dira haien lana ondo egiten ari diren edo ez neurtzeko baliagarri zaizkien termometroak. Garrantzitsuena, elkarrizketatzen dituzten artisten erantzuna da, Lusarretaren arabera: "Gure kuadrilako askok ez dute saioaren berri, baina kultur sorkuntzan ari direnek bai. Parte hartzeko deitzen diegunean, saioa ezagutzen dutela esaten digute, eta prest daudela parte hartzeko". Harago doa Mintegia: "Badira artista asko ez dutenak telebistarekin ezer jakin nahi izaten, baina gugan konfiantza dutenez, ausartzen direnak zerbait egitera". Zenbait kasutan, elkarrizketatuak eurak dira beste artista batzuk ezagutzeko bidea zabal-

tzen dietenak: “Seinale ona da hori ere. Horrek esan nahi du laguntzeko prest daudela, eta batez ere, saioan agertzea opa diotela beste horri.

Katearekin duten harremanaz galdetuta, Inguma Martinezen izena aipatu du Mintegiak. Bera da EiTB eta saioaren artean zubi-lana egiten duena: “Askatasun handia ematen digute, bai gaien hautaketan bai egiteko moduan. Konfiantza du gugan, eta eskertzekoa da hori”. Urtez urte berritzen dute saioa egiteko konpromisoa; gaur gaurkoz, ekainera arte jarraituko dutela besterik ez dakite: “Noizbait bukatuko da, baina irauten duen artean guk eginaz gozatzen jarraituko dugu”.

TELEBISTA, BAINA EZ TELEBISTAN SOILIK

Saioari herrenen bat aurkitu nahi izanez gero, zabalpenari begiratu behar zaio. Ez da harritzekoa, batek baino gehiagok saioa zer den bereizteko arazoak izatea: izena bera oso orokorra da, eta atalka ere emititzen denez, zaila da saio oso bat denik ongi ulertzea. Ez ditu horrek lan-taldeko kideak sobera kezkatzen: “Nork ikusten du ohituraz telebista gaur egun? Ikusteko interesa duenak, badaki atal guztiak sarean jartzen ditugula”, dio Lusarretak. Haien lana borondate horrekin egiten dute; saio osoan pentsatuta baino gehiago, atal bakoitza pieza berezi bat bailitzan.

Telebistako erakusleihoa baliatzeaz gain, edukiak sarean ere zabaltzen dituzte; baina EiTBren baliabideak erabilita soilik. Ez dute, hortaz, YouTube edo bestelako plataformak erabiltzeko aukerarik. EiTBren edukien ohiko herrena da hori. Hedapen pozgarriena, Larrazabalek dioenez, artistek eurek haien pieza hauspotzen dutenean lortzen dutena izaten da. “Hori da onena, konprobatzea sortutako materiala baliagarria zaiola protagonista den artistari”.

> *“Badira artista asko telebistarekin ezer jakin nahi izaten ez dutenak, baina gugan konfiantza dutenez zerbait egitera ausartzen direnak”*
>
> Hannot Mintegia

UHARTE BAT, GEHIAGOREN ZAIN

EiTBko saio gehientsuenen logikatik oso urrun dago EiTB Kultura; ez da audientzien menpe bizi, euskal sorkuntzen berri ematen du, eta badu esperimentatzeko joera. Bestelakoa izan zitekeen telebista publiko bat irudikatzeko aitzakia dira. Hortaz jakitun dira lan-taldean ere: askotan esaten diete uharte moduko bat direla, isolatuta daudela, presaz eta urgentziaz egiten den telebista den itsaso horretan. Hala borobildu du Lusarretak mahai-bueltako berriketaldia: “Noski nahi genukeela Euskal Telebistan gauza asko desberdinak izatea, eta saio gehiagok izatea guk dugun askatasun hori. Baina guk horretarako egin dezakegun gauzarik eraginkorrena gure lana ondo egiten saiatzea da”. Ez da gutxi. ●

LIBURUA

Ametsak eta mitoak

AMUA
ARITZ GORROTXATEGI
ELKAR, 2019

IGOR ESTANKONA

Konstantin poeman agerian uzten ditu Aritz Gorrotxategik (Donostia, 1975) bere Itaka guztiak, eta poesia mota hau urari buruz ere badela ikusten da, denborari buruz ere badela: "Utzi barrenari/ itsasaldian sartzen,/ elika dezala haizeak/ suzko aparra".

Irun Hiriko Kutxa literatura lehiaketan saridun, *Amua* prudentzia ariketa bat da, jolas neurtu bat, mitoen eta lezio txikien bitartez hitz egiten diguna egunero hasten den horretaz, bizitzaz. Hausnarketa opatzen digu gauaren erdian, itsasargi antzeko batzuk paratu haitzen ertzetan. Aritz Gorrotxategik kenduz-kenduz ondu du liburu soil baina elegante bat. Argitasunaren eta gardentsaunaren bila ei dabil, eta poemategi hau beste pauso bat da bide horretan. Izan ere, maiz adornua eta itzulingurua baino lagun hobeak izan ohi dira neurria eta hitza.

Horrek ez du esan nahi, ostera, filosofoa ez denik ume izan, eta ez zaionik gustatzen esapide baten gozoa, edo metafora baten beste aldea: "Astoa aldean, muinoan gora/ dator nekazaria bakarrik./ Esku zartatuak ikus ditzaket/ azala zimur, bihotza lehor./ Ziur tanta bat nahikoa duela/ bularreko landarea hazteko/ -ardoarena bada, hobe". Askotan, ustekabean, idazleak konbentzionala ez den irudi batekin errematatzen ditu definizio bat edo ideia bat: "Zer egiten duzu hor geldi,/ txaluparia zain dugu./ Bota du berriz bizitzak/ bere amua, arku bila/ dabil gezia".

Amua-ko eszenak badute basamortu zapore bat, hipotesi itxura bat. Mundua ulertzeko alferreko beste ahalegin bat begitandu zait, beti merezi duena egitea, eta beti dena ezinezko. Gero eta introspekzio lan handiagoa, gainera, emaitza ederragoak lortzen ditu Gorrotxategik. Erreferentzia eta makulu gehiegi erabiltzen dituen poemetan, direla pentsalarienak direla idazleenak, lausotu egiten zaio poesia, galdu berezko indarra.

Eite klasikoak atsegin badituzu liburu honek patxada eta perspektiba eskainiko dizkizu. Hartu, pixka bat probatu, eta zaporea ahoan erabiltzeko dira tonu pausatuko berba hilezkor hauek. Badaki Aritz Gorrotxategik esaten artez eta esaten kontuz, eta kontatzen ipuin baten antzera poemak. ●



MUSIKA

Hegan egiten

IL CERCATORE DI PERLE
INOREN ERO NI
BIDEHUTS, 2019

JOXI UBEDA

Inoren Ero Ni taldeak bere bidea egiten jarraitzen du, bide bihurria, urratsez urrats aurrera egiten, bilatzen, probatzen, esperimentatzen, beste soinu lurralde batzuk ezagutzen, hegan egiten. *Il cercatore di perle* (Harribitxien bilatzailea) izenburua oso aproposa da, ederki azaltzen du edukia, mamia. Haien lanik onena dela esan daiteke, biribilena, pertsonalena.

Lau kantaz osaturiko binilozko EP edo iraupen laburreko disko bat da, eta kantak CD batean ere entzun daitezke. Okene (ahotsa, tronpeta), Borja (gitarra), Guanche (bateria) eta Mariano (baxua) Garate estudioetan aritu dira Martxel Arkarazorekin (grabazioa, masterizazioa), eta beren ohiko musika tresnez gain, teklatuak, perkusioak, eta beste hainbat gailu eta traste ere erabili dituzte. Okenek, abesteaz gain, hitz egin edo errezitatu egiten du, tarteka xuxurlak edo oihuak egiten ditu, batzuetan bere ahotsa oso urrundik iristen dela ematen du, eta tronpetarekin hotsak egiten ditu.

Azken batean, taldekideek jolas egiten dute soinuekin, erritmoekin eta hitzekin –Charles Bukowskiren poema batean oinarritu dira kanta bat egiteko–. Hamaika xehetasun eta ñabardura entzun daitezke kantetan, erritmo aldaketak, mozketak, tentsioa, eta melodia politak ere bai; pasarte batzuk biziak dira, indartsuak, eta beste batzuk leunak; eta une kitzikagarriak bizi daitezke, iradokitzaileak, bereziak. Kanta bakoitza mundu desberdin bat da, harribitxi bat, izenburuak berak adierazten duen bezala.

Ibilbide ederra egiten ari da Inoren Ero Ni diskoz disko eta emanaldiz emanaldi. Hamazazpi urtean sei disko egin dituzte, bakoitza bere airearekin, ukituekin eta ezaugarriekin. Lehen diskoa hardcorearen kutsukoa dela esan badaiteke, orduko erritmo azkarrak mantsotu egin dira, gero eta ñabardura gehiago entzun daitezke haien kantetan, gero eta aldaketa gehiago giroen aldetik, eta ondorioz Inoren Ero Nik egiten duena ezin da parekatu musika estilo jakin batekin, ezin da ohiko musika tiradera batean sartu.

Hurrengo disko bat egiten badute, Inoren Ero Ni estilokoa izango da, baina ziur desberdina izango dela aurrekoekin alderatuz. ●

Igandero hardcorea, mesedez

CORAZÓN DEL SAPO
ARRASATEKO GAZTETXEA

XALBA RAMIREZ IKOR KOTX

Arriskua dute desagertutako musika taldeen itzulerek. Nostalgia lagun, denbora igaro ez dela sentitzeko, eta paradoxikoki, zenbat aldatu garen konfirmatzeko erritualak dirudite. Taldearen esentzia bera aldatu egiten da, aldatu egin delako inguruko guztia, eta punkyek marka-festibaletako kartel buru izateko lehiatzen dute. Baina Corazón del Sapo-ren kasuan ez da berdina. Ez da inoiz berdina izan.

1990eko hamarkadako Aragoiko hardcore talde ezagunenetako bat da, mila eta bat borroken lekuko eta akuilu. Otsailaren amaieran Katalunian faxismoaren gorakadari aurre egin eta kontzertu batzuk emateko itzuli da taldea, euren filosofia borrokalariari jarraituz.

Eta honela, Arrasateko Gaztetxean elkartu gara ehun eta koska lagun, otsailaren 2an, igande arratsalde batez, ahoz aho zabaldu den deialdiari jarraiki. Bruce Springsteen-en kontzerturako bezala, ilara egiteko aulkiak ekarri dituzte batzuek, baina denentzat dago lekua gaurkoan.

Urduri itxaroten ari da jendea, lekua egiten, atzetik aurrera gerturatzen. Txalaparta *sample* baten ostean hasi da taldea, *tupa tutupa* bizkorrean. Adio kezkak, adio urduritasunak, adio dena. Bultzada, izerdi eta besarkadak eta ukabilak gora koruak oihukatzeko.

Baina hau ez da ohiko *pogo matxiruloa*. Bultzatu egingo zaituzte, baina ez da inor eroriko. Hiru aldiz zapaldu dit oina pareko ezezagunak, eta hiruetan dantza zoroa gelditu eta barkamena eskatu dit. Eta hiruetan abestuz erantzun diogu elkarri.

Aura –agian sobera– idiliko hau ez da zerutik erori, bistan da. Gaian hasiberriek ez dute zertan jakin, baina hardcore eszena ez da gainontzekoen tankerakoa. Autoantolaketa eta autogestioan oinarritzen da, areto, ekoiztetxe eta banaketa sareak barne.

Laguntasun eta konplizitate handiarekin egin daiteke erreala soilik honelako ekimen bat. Azpimarratzekoa, momentu zehatzetan baino ez dira mugikorrak atera argazki eta bideotarako. Storietan inor etiketatzeko beharrik ez du inork.

Kantu bizkorrak eta metaforaz betetako letra aldarrikatzaile sorta osoa jo dute. Ez da kantu bakarra geratu kanpoan. *Fuego al cielo de los cuervos* kamisetarekin abandonatu dute gaztetxea zaleek, izerditan blai eta irribarrea ezin ezkutatuta. Ez da nostalgiari aipamenik egin, ez da batailatxorik kontatu. Ginena eta izango garena, dantza eta kantu artean, besterik ez. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak

Xume, umil — Janari multzo
Pertso-naiaren izena — Herrestan, arrastaka
Etorkizun
Hirugarren musika nota — Edari alkoholdun
Ziburuko rap taldea — Listua
Lehor, agorturik — **Pertso-naiaren izena**
Elurra poliki eta ugari — Nolako bihurtu
Gaixotasun — Silaba hinduista
Gehiago — Ospakizun garrantzitsua
Ezezkor — Bat erromatar zenbakiz
Zelan — 200 erromatar zenbakiz
Euskararen Gaitasun Agiria
Radonaren sinboloa — Gaueko hamabiak
Ameri-zioaren sinboloa — Idi-proba
Arma zuria
Hitanoa — Kebidetako zikinkeria
Bete — gar
Alfabetoko azken letra — Oihuz
Hitzordu — Ehun mota
Aupa, iepa! — Fisikako teoria
Hamaika erromatar zenbakiz — Dut (alderantziz)
Pilotan, tanto ziurra — Emakumezko izena
Potentzia — Egiptoko jainkoa
Dauka — Emakumezko jantzi
Hemen dagoena
Hidrogenoa — Idi hitzelkarketan
Daukate — Gizateria
Gizarteko ondasunen multzoa — Iodoa
Estali

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8				1			
				9	5	6		
5						1	7	
		3	7	8				
		6				8		
				3	6	2		
	1	8						9
		2	4	5				
			9				3	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Euskal mitologiako izakia
2. Buruko ileen multzo
3. Masoneriako kide
4. Erabat lasterka
5. Asiako herritar

EBAZPENAK

5X5:
1. LAMIA
2. ADATS
3. MASOI
4. ITOKA
5. ASIAR

2	8	4	6	7	1	3	9	5
3	7	1	2	9	5	6	8	4
5	6	9	8	4	3	1	7	2
1	2	3	7	8	4	9	5	6
7	4	6	5	2	9	8	1	3
8	9	5	1	3	6	2	4	7
4	1	8	3	6	7	5	2	9
9	3	2	4	5	8	7	6	1
6	5	7	9	1	2	4	3	8

G	I	Z	A	D	I	A		T	A	P	A	D	T	U					
	D	U	T	E		E	K	O	N	O	M	I	A						
E	R	L	A	T	I	B	I	T	A	T	E		H						
	E	U	P		X		P		P	D	U								
S	U		Z						Z	I	T	A							
	A	S	E						K	E	D	A	R						
E	G	A							H	I	K	A							
	R	N							C	C	A	M							
Z	E	R	E	M	O	N	I	A		N	O	L	A						
	H	A	B	O	R	O		U	K	A	K	O	R						
M	E	N	U		E	R	I	T	A	S	U	N	A						
	X		R		G		M		M		X		M						

Nerea Erbiti

MUSIKAREN INDUSKETETAN

AHOTSA ETA INPROBISAZIOA, INDUSKETARAKO TRESNA

"Nerea Erbiti naiz, musikaria. Ahotsa da nire musika tresna nagusia, baina trikitia, txalaparta, panderoa, perkusioa eta pianoa ere jotzen ditut. Orain Nerea Erbiti & Eskola Ergatiboa proiektuan murgilduta nago, baina beste hainbatetan ere ibiltzen naiz: Lurpekariak, Joseba Tapia, En-kantu, Broken Brothers Brass Banda… batzuetan partaide eta besteetan kolaboratzaile. Euskalerria Irratian kolaboratzailea ere banaiz, irakaslea ere bai: AAHM eskolan eta Nafarroako goi mailako kontserbatorioan ematen ditut klaseak, eta *voice craft* ahots sisteman espezializatua nago. Tradizioa, inprobisazio askea eta musika urbanoa dira gaur egun nire interes nagusiak, eta horien bilaketan aritzen naiz. Ahotsa eta inprobisazioaren bidez egiten dut bilaketa hori".

"Nire benetako kulturarekin harremanik ez badut, zer dut?"

Arkeologoa fosilari bezala aritzen zaio Nerea Erbiti musikari, geruzak banan bana kentzen, denboran atzerako bidaian. Jazza eta musika beltzaren inguruan aritzen da, baina sentitzen du eremu horretan bere ekarpen propioa egiteko beharra. Euskal tradizioa nahi du erantsi, hain justu, eta erro horien bilaketetan aritzen da trebe.

ANDER PÉREZ **JOSU SANTESTEBAN**

Zer aurki liteke musikaren indusketetan?
Indusketetan, zailena izaten da ateratzen ari zaren gorpu edo fosil hori ez haustea. Guri grabaketak dauden unetik aurrerako musika ailegatu zaigu; grabaketekin musika barreiatzen hasi zen, nahasi zen beste musika batzuekin, eta beraz, indusketa lan horretan, erroetara iristeko, kapa horiek kentzen jakin behar da.

Zeri deitzen diogu "tradizio"?
Niretzat gure arbasoek egiten zutena da, haien adierazteko era. Naturarekin harremanetan zeuden gure arbasoak nola espresatzen ziren? Zertarako erabiltzen zuten musika? Haien egunerako bizitzan oso garrantzitsua zen. Hori dena ez zaigu iritsi, garai batean ahoz aho egiten zelako. Oiloak arrautza jartzen zuenerako ere bazen kanta bat. Eta hori galdu da. Oso gutxi dira etxean afaldu eta kantatzen jartzen direnak. Telesailak ikusten aritzen gara.

Tradizioa badago, edo bilatu egin behar da?
Kontua ez da tradizioa hartu eta imitatzea, edo berdin erreproduzitzea. Kontua da tradiziotik zer erro hartuko dugun gaur egun daukagun nahaste-borraste honetara, edo ikasi dugun musiketara, ekartzeko. Ez da egia absolutu bat. Nik betebehar bat sentitzen dut: tradizioa hartu eta niri iristen zaidana interpretatu. Noski, eraldatu behar da, gaurkotu behar da, bestela hor gelditu ko da. Baina ezin da dena alde batera utzi, beste musika bat ikasi eta esan: "Nik rock talde bat dut" edo "nik 90eko popa egiten dut". Horrek ez nau betetzen.

Eta zerk betetzen zaitu?
Sentitzen dut tradizioa, orain arte, alde batera utzi dudala: kontserbatorioan ikasten hasi nintzenean, nolabait uko egin nion nire tradizioari, abesteko erari, ez nuen ez hizkuntzarik ez deus. Nik trikitia jotzen nuen, panderoa, txalaparta, eta ez dakit konplexua zen, baina…

Ez zizun balio moderno izateko.
Hori sentitzen nuen. Ideia horrekin hasi nintzen beste musika batzuk ikasten, eta jazzean sartu nintzen. Bat

"OILOAK ARRAUTZA JARTZEN ZUENERAKO ERE BAZEN KANTA BAT. ETA HORI GALDU DA. OSO GUTXI DIRA ETXEAN AFALDU ETA KANTATZEN JARTZEN DIRENAK. TELESAILAK IKUSTEN ARITZEN GARA".

-batean ohartu nintzen: ni zer ari naiz hemen, Nafarroan, jazza abesten? Ez da nire hizkuntza. Jazza abesten dutenak New Orleansen daude, eta ez dut eginen haiek baino hobe. Eta pentsatu nuen: zein naiz ni? Nondik heldu naiz? Zer ekarpen egin dezaket? Nire egiazko tradizioa. Eta orduan, hasten zara atzera egiten, bilatzen, interesatzen, eta agertzen zaizu hemendik kantutegia, handik ahots bat…

Zertan zaizu hori baliagarri?
Iruditzen zait abesteko nortasuna ematen didala, errealitate bat, nire buruarekin zintzoa izatea. Atzera begira aurrera begira baino gehiago ireki dut burua. Hizkuntza bat mantendu behar dugun bezala, zein garen ere ez dugu ahaztu behar. Ez du balio euskalduna izateak eta euskaraz egiteak, baina gero taberna batera joatea reaggetoia dantzatzera. Nire eguneroko bizitzan nire benetako kulturarekin edo nire benetako zerbaitekin harremanik ez badut, zer dut? Hor haustura bat dago.

Zuretzako zer da euskal musika euskal musika egiten duena?
Zer da euskal musika eta zer ez? Mocedades euskal musika da? Oso zaila egiten zait definitzea. Badago dioenik, nik, jazz talde bat egin eta euskaraz abesten badut, euskal musika egiten ari naizela. Bada tira, ez dakit, goazen eztabaidatzera. Niretzako ez dago argi. Gehiago nago ezezkoan.

Beraz, hizkuntza ez da euskal musika zehazteko funtsezko irizpidea?
Ez, beste zerbait da. Espresatzeko era bat da. Kanpotik etortzen denak esaten du euskaldun bat lagun egitea oso zaila dela, baina behin eginda betirako laguna dela. Musikan ere badugu espresatzeko era bat. Badago zerbait euskalduna, izaera bat. [Mikel] Laboa euskal musika da? Esango baligute euskal musikaren izen bat aipatzeko, denok esango genuke: Laboa! Baina Laboak asko edan du kanpoko musikatik, Billie Holidayrengandik adibidez, eta hori bereganatu du. *Komunikazio-Inkomunikazioa*-n batzuetan erdaraz ari da… Eta euskal musika da? Bai!

Zer du euskal musikak musika beltzetik?
Iruditzen zait norbere identitatea mantentzea, zure buruari fidela izan eta konplexurik gabe aurrera egitea oso beltza izatea dela. Eta, bestalde, euskal musikak asko du jazzetik, inprobisaziotik: melodiak, erritmoa, edo bertsolaritza bera; ari gara letra momentuan asmatzen. Txalapartan edo panderoan ere inprobisatzen da.

Eta zer du musika beltzak, euskal musikak ez duenik?
Gaur egungo abeslari beltz bat aditzean, tradizioa aditzen zaio. Eta guk, hainbeste edan dugu beste musika batzuetatik, ez dugula mantendu. Herritik hirira joatean bezala: hirira joatean nire aitonak erdaraz egiten zuen, ez zekien, baina erderaz egiten zuen.

Musikak badu garairik? Edo atenporala da?
Musika berri bat sortu den bakoitzean, uneko gizarteari erantzun bat emateko izan da. Tradizioa ere garai batekoa da, garai bateko beharrak erantzuten ditu. Beraz, gaur tradizioa hartu eta imitatzen badut, Mikel Laboa imitatzen hasten banaiz, Mikel Laboaren imitatzaile bat izanen naiz. Aditu behar dut, bilatu behar dut berak bilatzen zuena, eta horrekin zerbait egin. Berarengandik ikasi behar dut, konplexurik gabe. Uko egiten diogu horri. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Estatutu Berriaren bila ari dira erreskate taldeak Zaldibarko zabortegian

JOSU ERKOREKA, ASTEBURUETAN HAIN GUSTUKO DITUEN MENDI BUELTA HORIETAKO BATEAN.

EAErentzat erabakitzeko eskubidea aurreikusten zuen estatutu berria Zaldibarko zabortegian lurperatuta egon daitekeela iragarri du aste honetan Eusko Jaurlaritzak komunikatu labur baten bidez. Lakuako gobernuaren arabera, hauteskundeak deitzear zeudenean bota zuten zakarrontzira eta "Euskadirentzat arriskutsuak diren beste gauza guztiak bezala" Zaldibarrera eraman zuten, luizia gertatu baino lehenxeago. Jaurlaritzak garrantzia kendu dio desagerketari, ez ordea Gure Eskuk: urgentziazko prentsaurreko baten bidez giza-katea deitu dute zabortegiraino eta adierazi dute "denon artean, desadostasun politikoak alde batera utzita, estatutu hori berreskuratu behar dugula". Behin estatutua zabor pilatik erreskatatuta, prozesioan Maltzagarainо eramatea proposatu du Gure Eskuk. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Zozulya pelotari

Irudia: @martin_kitto

Jantzi berokia Alonsotegira bazoaz

Jose Luis Kortak haserretzen den bakoitzean Zaldibarko zabortegiak baino dioxina gehiago jaurtitzen du

Ostia txarrean jartzen den bakoitzean, Jose Luis Kortak 3.000 fentogramo dioxina toxiko jaurtitzen du airera metro kubiko bakoitzeko. "Osasunarentzat kaltegarriagoa da Orioko gizasemearen alboan egotea, Zaldibarko zabortegitik datozen partikulak arnastea baino", idatzi du Azal Lodigoitia kazetariak *El Diario Vasco*n. "Are gehiago, lo dagoenean ere arriskutsuagoa da Kortaren alboan egotea, Zaldibarko parajeetatik bizikleta txango bat egitea baino". Beste datu argigarri bat ere eman du Gipuzkoako periodikorik salduenak: "Zaldibarko zabortegia aireratzen ari den dioxina toxikoak –3 fentogramo– gutxiago dira Zaldibarkoagatik erre-erre eginda dauden herritarrak jaurtitzen ari direnak baino. Hobe lukete apur bat lasaitu eta Urkulluren odol hotza erakutsi". ●

AZOKA 2020

EROSI INTERNETEKO ARGIAREN AZOKAN

azoka.argia.eus

ARGIA

943 37 15 45 azoka@argia.eus

KATERIK GABE KATEAN

Ezinbesteko katebegia gara
aurrera egiten jarraitzeko

GIHen 5. HELBURUA
Genero berdintasuna eta
emakume eta nesken ahalduntzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030 | 5 GENERO BERDINTASUNA | BEIJING +25

MARTXOAK

Emakumeen Nazioarteko Eguna

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO